


artelka



PERTUR, 50 URTE

1976ko uztailean, Latinoamerikako hainbat eta hainbat diktaduratan ohikoa zen modu berean, Pertur, ETA(pm)-ko militantea, desagertu egin zen Iparraldeko mugatik gertu.

Zenbaki hau omenaldi bat da, bai haren militantziari, bai haren ondareari. Orri hauetan, gaia eta garaia ezagutzen ez dituen irakurleak, hasteko, hiru artikuluko xume aurkituko ditu orduko testuinguruari buruz: bata, ETAREN barruko eztabaidari eta *milien* eta *polimilien* arteko banaketari buruzkoa; bestea, EIAren ibilbide tristeari buruzkoa, eta, hirugarrena, laburragoa, Perturren beraren desagertuaren buruzkoa. Ondoren datozen hurrengo bi artikuluek, Vaptsarov-ek idatziak, Perturren figuraren bi aldeak aztertzen dituzte: batetik, borroka armatuaren paperari buruzko eztabaidari egin zion ekarpena, *Otsagabia* ponentziaren bitartez, eta, bestetik, haren desagertuaren, faxisten eskuetan. Hain zuzen ere, Pertur desagertu izanak posible egin zuen bere ekarpen politikoa galtzea eta, azken batean, Estatuak EIA xurgatzea. Hori dela eta, desagertu hori ez zen soilik militante baten kontrako beste bidegabekeria bat izan; auzi politiko zinez garrantzitsua izan zen.



Edukia

06

Miliak eta polimiliak

Susper

20

EIAren historia laburra. Hurbilpen bat

Urko Garmendia

34

Pertur, 50 urte zain

Orhi-Xabier Zabaleta Ikatzeta

40

Otsagabia ponentziak 50 urte: Pertur eta KASen arteko elkarrizketa

Vaptsarov

56

Pertur: iraultzaile baten desagertzea

Vaptsarov

06




20



34



40



56





MILIAK

Testua — **Susper**

ETA

POLIMILIAK

Euskadi Ta Askatasuna (ETA) antolakundea bitan banatu zen 1974an: ETA militarra eta ETA politiko-militarra. Bi antolakundeeek garapen desberdina izan zuten, eta urte gutxitan nabarmen aldatu zituzten bakoitza ezaugarritzen zuten tesi politikoak. Testu honetan, haustura horren testuinguraketa xume bat egingo dut, sarrera moduan..

ETAREN LEHEN URTEAK

1958an, EAJk frankismoaren aurrean erakusten zuen immobilismoak bultzatuta, Euskadi Ta Askatasuna (ETA) antolakundea sortu zen. Antolakunde horrek hasieratik erakutsi zituen EAJrekiko desberdintasun politikoak. Abertzaletasuna irmo defendatzen zuen, eta borrokarako determinazio handia eta Euskal Herriaren alde modu aktiboagoan jarduteko borondatea erakutsi zuen. Ordura arte abertzaletasunaren oinarrian zegoen “arraza” kontzeptua berrikusi zuen, eta kultura eta hizkuntza gisako kontzeptuen bidez ordeztu. Erlijioari zegokionez, akonfesionaltzat aurkezten zen. Gainera, EAJrena baino programa sozial aurrerakoiagoa zuen, nahiz eta oraindik komunismotik urrun kokatzen zen.

Hirugarren munduko askapen mugimenduek garbi eragin zuten antolakundearen garapenean. Vietnam, Aljeria edo Kubako esperientziak erreferentziazkoak izan ziren. Gainera, 60ko hamarkadan langile mugimenduak Euskal Herrian izan zuen garapenak antolakundea ezkerreko ideologietara gerturatzea ekarri zuen.

Horrela, antolakunde barruan hiru joera egon ziren. Alde batetik, “tercermundistak”, hirugarren munduko esperientzien eraginik handiena jaso zutenak ziren. Bestalde, “obreristak”, zeinak langile borroken eragin nabarmena izan zuten. Azkenik, “kulturalistak”, askapen nazionala aldarrikatzen zuten arren, sozialismo ez-marxista bat defendatzen zutenak.

1964an egin zen ETaren III. Asanbladan, borroka armatua antolakundearen helburuak lortzeko bitarteko egokiena zela erabaki zen. Behin estrategia birpentsatuta, “ekintza-errepresioa-ekintza” eskema onartu zuten. Horren bidez, talde armatu txiki batek Estatua garaitzeko izan zezakeen modua zehaztu zuten. Haren arabera, gutxiengo iraultzaile batek Estatua kolpatu behar zuen, hark errepresioarekin erantzun zezan; horrela, gutxiengo iraultzaileak babes sozial handiagoa eskuratuko zuen.

Asanblada horren ostean, joera obreristakoek Bulego Politikoaren eta *Zutik* aldizkariaren kontrola eskuratu zuten; horren ondorio izan zen aldizkariako zenbakiek geroz eta izaera obreristagoa hartu izana. 1966an ezohiko Komite Exekutibo batek Bulego Politikoa osatzen zuten kideak antolakundetik kanporatzea proposatu zuen. Kanporatuek ETA-Berri antolakundea sortu zuten; beste antolakundeari, bereizteko, ETA-Zaharra deitzen hasi ziren. Gerora, ETA-Berrik Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK) osatu zuen, Movimiento Comunista-ren (MC) Euskal Herriko atala.

1966an egin zuen ETAk bere V. Asanblada. Asanblada horren bigarren zatia ren ondoren, kulturalistek antolakundea utzi zuten, ETA talde marxista-leninista bilakatu zela gaitzetsiz. Kulturalisten taldea *Branka* aldizkariaren inguruan antolatu zen. Horrela, joera *tercermundista* nagusitu zen antolakundean. Asanblada horren ondoren, ETAk bere ideologia nazionalismo iraultzailea zela adierazi zuen. Askapen prozesu hori aurrera eramateko subjektua Euskal Langile Herria zela zehaztu zen. Vietnamgo ereduari jarraituz, antolakundearen egitura lau frontetan banatu zuten: kulturala, politikoa, militarra eta

Hirugarren munduko askapen mugimenduek garbi eragin zuten ETaren garapenean. Vietnam, Aljeria edo Kubako esperientziak erreferentziazkoak izan ziren. Gainera, 60ko hamarkadan langile mugimenduak Euskal Herrian izan zuen garapenak antolakundea ezkerreko ideologietara gerturatzea ekarri zuen

ekonomikoa (gerora, Langile Frontea izango zena). Maoismoaren ildo beretik, momentuko kontrasean nagusia oligarkiaren eta herriaren artekoa zela zioten; “herria” proletariotza, burgesia txikia eta oligarkikoa ez zen burgesia nazionala barnebiltzen zituen terminoa zen. Horregatik, iraultza sozialistaren aurretik, nahitaezkoa zen iraultza herrikoi bat egitea. Iraultza hori bideratzeko Fronte Nazionala eraikitzea ezinbesteko eginkizuna zen; Fronte Nazionala aurrez aipaturiko gizarte sektore herrikoiek osatutako fronte gisa irudikatzen zen.

1970eko VI. Asanbladan, herriz ere, joera desberdinen arteko tentsioak azaleratu ziren. 1969an egon ziren atxiloketen ondoren osatu zen zuzendaritzak joera obrerista zuen. Asanblada horretan, Bosten Taldeak –V. Asanbladaren ondoren antolakundeko Biltzar Ttipia osatu zuen taldea– eta Fronte Militarrek ez-legitimotzat jo zuten asanblada. Horrela, haustura berri bat gertatu zen.

Fronte Militarrek eta Bosten Taldeak ETA-V sortu zuten, euren aburuz V. Asanbladaren parametroi leial zitzaien antolakundea. Bestalde, ETA-VI deitu zitzaion zuzendaritza berria eta antolakundearen gehiengoak osatzen zuen taldea-

V. Asanbladaren ondoren, ETAk bere ideologia nazionalismo iraultzailea zela adierazi zuen. Askapen prozesu hori aurrera eramateko subjektua Euskal Langile Herria zela zehaztu zen

ri. 1973an, ETA-VIren gehiengoak Liga Komunista Revolucionaria (LCR) antolakundera batu zen, eta Liga Komunista Iraultzailea (LKI) sortu zuten Euskal Herrian.

Hurrengo urteetan ETA-V hazten joan zen. 1972an, EGI-Batasuna antolakundea batu zitzaien eta indar militantea nabarmen handitu zen. Egondako haustura desberdinen ondoren, aipatu antolakundea ETA izena hartu zuen.



ETako kideak, 1982an zatiketa iragartzen

MILIAK ETA POLIMILIAK

1972an, ETAren V. Asanbladan antolaketa ereduaren baliagarritasunaren inguruan zalantzak sortzen hasi ziren. Alde batetik, Fronte Militarrak (FM) urte haietan aurrera eramandako dinamikak beste fronteak bere jardueraren menpe egotea ekarri zuen. FMren beharrak gainerako fronteenen gainean inposatzen zirelako sentsazioa zabaltzen joan zen antolakundeko kide batzuen artean. Jardun militarrari lehentasun berezia ematen zitzaiola zirudien.

Gainera, antolakunde batek ekintza armatuak gauzatzeak beste motatako jardunak modu iraunkorrean egitea galarazten zuen. Langile Frontekoek (FO gaztelaniazko sigletatik) ziotenez, FMren jardunak zekarren errepresioa zen hain zuzen ere masekin lan politiko iraunkorra egitea eragozten zuena. Izan ere, ekintza armatuak gauzatzeak sortzen zuen errepresio gogorrak FO behin eta berriro desegiten zuen. Hori zela eta, antolakundeari intentsitate handiko borroka armatua egiteak asko zailtzen zion langile mugimenduan parte hartzea.

Bestalde, ezker abertzalea sortzen ari zen oinarri soziala enkoadratzeko arazoak nabarmenak ziren. ETAk gero eta babes sozial handiagoa zuen arren, ez zen horri etekin nahikoa ateratzeko gai. Izan ere, antolakundearekin sinpatia zuten askok ETAren aldeko ekarpen bat egin nahi zuten arren, ez zeuden prest borroka armatuak eskatzen zuen sakrifizioa onartzeko. Pertsona horientzat naturala zen espazioa FO izan beharko luke. Hala ere, praktikan, FOk FMren errepresio maila berdina jasaten zuen, biak ETA izenaren pean antolatzen baitziren. Horregatik, FOn parte hartzeak, militantzia legal edo erdi-ilegal bat eskaini beharrean, errepresio gogorra zekarren. Funtsean, ETAk geroz eta babes sozial handiagoa zuen arren, ez zen gai bere ideologiarekin identifikatzen ziren pertsona askori ekarpen bat egiteko espazio egokia eskaintzeko.

Arrazoi horiengatik, langile munduko beste antolakunde batzuk (PCE, Comisiones Obreras, ORT, MCE...) ETA baino azkarrago hazten ari ziren. Izan ere, ETAk gazte askoren kontzientzia politikoa piztu zuen arren –bere militantziak egiten zuen sakrifizio erraldoiari esker–, horietako askok beste antolakunde batzuetan parte hartzen bukatzen zuten.

1972ko urrian antolatu zen aurreasanblada batean, fronteen antolaketa sinplifikatzea adostu zen, Fronte Kulturala eta Langile Frontea batuz,

Langile Frontekoek (FO gaztelaniazko sigletatik) ziotenez, FMren jardunak zekarren errepresioa zen hain zuzen ere masekin lan politiko iraunkorra egitea eragozten zuen

Langile Frontea (FO) izenpean. Horrela, FO ETAren fronte politikoa izango zen, jardun ez-militar ia osoa bere kargu izanik.

1973ko abuztuan egin zen VI. Asanbladaren lehen zatian FOren eta FMren artean hainbat eztabaida egon ziren. Eztabaida horien atzean antolakundearen izaera ulertzeko bi modu zeuden: FMk borroka armatuan zentratutako ETA nahi zuen; FOk, ordea, langile munduari irekiago zegoen antolakunde bat nahi zuen, borroka armatua lehentasun berezirik gabeko beste tresna bat bezala ikusiz. Antolakundean ez zen borroka armatuaren erabilera zalantzan jartzen, baizik eta hark izan beharreko funtzioa. Borroka armatuaren eta masa borrokaren arteko harremanaren eta koordinazioaren ingurukoak ziren eztabaidak. VI. Asanbladan ez ziren eztabaidak ebatzi eta bigarren zati batera atzeratu ziren.

Antolakundean ez zen borroka armatuaren erabilera zalantzan jartzen, baizik eta hark izan beharreko funtzioa. Borroka armatuaren eta masa borrokaren arteko harremanaren eta koordinazioaren ingurukoak ziren eztabaidak

1974an, zuzendaritzak ikusi zuen FOrekin haustura ukaezina zela. Horregatik, egoera horri aurre hartzeko, antolakuntza eredu berri bat probatzen hasi zen. Horrela, “eremu pilotu” desberdinetan, gerora modelo politiko-militarra gisa ezagutuko zena ezartzen hasi ziren. Hartara, lurralde bateko lan politikoa eta militarra arduradun berdinaren zuzendaritzapean batzen zituzten, nahiz eta bi borroka lerroak berain arteko egitura banatuetan aurrera eramaten ziren. Beraz, lurralde bakoitzeko militante legalak eta ilegalak egitura banatuetan zeuden arren, arduradun berdinaren gidaritzapean antolatzen ziren. Hori guztia ez zitzaion FOri helarazi.

FO ohartu zen beraiek albo batera utzita langile zelulak antolatzen ari zirela. FO baztertzeko mugimenduak zirela pentsatu zuten, eta, gainera, akordio asanblearioaren haustura zirela. 1974ko ekainean, III. Biltzar Ttipian, FOk antolakundea uzten zuela adierazi zuen, argudiatuz bertatik ezin zuela lan politiko egokirik egin. Bestalde, FMri leporatu zitzaion fronteetako egituratik kanpo langile komiteak sortu izana.

FOko gehiengoa (Gipuzkoako ia aparatu osoa eta Bizkaiko zati bat) antolakundetik irten zen eta 1974ko abuztuan LAIA (Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia) sortu zuen. Antolakunde sozialista, abertzale eta iraultzailea zen. Horrela azaldu zuen LAIAk haustura emateko arrazoia *Sugarra* aldizkarian: “La imposibilidad de romper con el activismo separado de las masas que nos atenazaba, está en el origen de nuestra ruptura con ETA”. Eta horrela deskribatu zuen berak gorpuztu nahi zuen eredu politikoa: “Así, pues tanto a nivel táctico como estratégico, el brazo armado de la organización deberá estar en función de la política obrera definida por nuestro aparato. La

diferencia con ETA es obvia, ya que allí se supedita toda la práctica al militarismo activista”.

ETAko kideen artean desberdintasunak zeuden oraindik ere. Bi joera bereiz zitezkeen: baziren etorkizunean “polimili” deitzen hasiko zirenak, eremu pilotuetan praktikan jarritako antolaketa ereduaren aldekoak. Besteek, gerora “mili” deituak, antolakunde militarra antolakunde politiko eta popularretatik banatu behar zela uste zuten.

IV. Biltzar Ttipian eman zen milien eta polimilien arteko haustura, 1974ko urrian. Rolando kafetegiko atentatuan antolakundeak hartu beharreko posizionamendu publikoaren inguruan tentsio handiko eztabaida egon zen. Gero, eremu pilotuetan aplikatzen ari ziren antolaketa erdua eztabaidara plazaratu zutenean, miliek bilera utzi zuten.

Antolakundearen gehiengoa hasiera batean politiko-militarren taldearekin lerratu zen, eta beren buruari ETA politiko-militarra edo ETA (pm) deitu zioten. Horiek VI. Asanbladako bigarren zatia 1975eko urtarrilean egin zuten. Bertan antolaketa eredu berria berretsi zuten. Bestalde, ekintza armatu konplexuak gauzatzeko Komando Bereziak sortu zituzten, esperientzia gehien zuten liberatuekin.

Miliek antolakundea uztea erabaki zutenez, ETA militarra edo ETA (m) deitutako antolakundea sortu zuten. Haien aburuz, ekintza armatuak gauzatzen zituen antolakunde batek jasotzen zuen errepresio maila zela-eta, antolakundeak ezin zuen beste zereginik egin. Horregatik, ideologikoki ETAren alde zeuden kide desberdinak antolatzeko zailtasunak zeuden. Ondorioz, haien ustez, beharrezkoa zen antolakunde armatua antolakunde politiko eta popularretatik bereiztea,

Antolakundearen gehiengoa hasiera batean politiko-militarren taldearekin lerratu zen, eta beren buruari ETA politiko-militarra edo ETA (pm) deitu zioten. ETA (pm) taldeak egindako VI. Asanbladako bigarren zatian antolaketa eredu berria berretsi zuten. Bestalde, ekintza armatu konplexuak gauzatzeko Komando Bereziak sortu zituzten, esperientzia gehien zuten liberatuekin



azken horiek beren jarduna aurrera eramateko askatasun handiagoa izan zezaten. Hortik aurrera, beraz, bi ETA egon ziren: militarra eta politiko-militarra.

HAUSTURATIK GERNIKAKO ESTATUTURA

Banaketaren ostean, polimiliak izan ziren antolakundearen kontrola eskuratu zutenak. Beraz, bi antolakundeen artean, ETA (pm) indartsuena zen eta ekintza ugari egiten hasi zen. Hala ere, laster aldatu zen egoera. 1975ean errepresioak gogor kolpatu zuen ETA (pm); “El Lobo” infiltratuak erantzukizun handia izan zuen. Hainbat polizia operazioen bidez, komando asko desegin zituzten. Errepresio kolpe horien ostean, liberatuen ehunekoa nabarmen igo zen antolakundean. Horregatik, Komando Bereziek pisu handiagoa hartu zuten antolakunde barruan.

1975ean polimiliek jasandako atxiloketek eta egindako ekintzek eragindako errefusak antolakundearen norabidea birpentsatzera bultzatu zituen. Hori zela eta, asanblada berri bat deitu zuten. Asanblada horretarako, Eduardo Moreno Bergaretxe “Perturrek” eta Javier Garayalde “Errekak” *Otsagabia* ponentzia idatzi zuten. Bertan autokritika sakona egin eta antolaketa eredu politiko-militarra alboratzeko beharra ondorioztatu zuten. Horregatik, antolakundearen

1975ean asanblada berri bat deitu zuten polimiliek. Asanblada horretarako, Eduardo Moreno Bergaretxe “Perturrek” eta Javier Garayalde “Errekak” Otsagabia ponentzia idatzi zuten. Bertan autokritika sakona egin eta antolaketa eredu politiko-militarra alboratzeko beharra ondorioztatu zuten. Horregatik, antolakundearen erdibitzea proposatu zuten, alderdi politikoa eta antolakunde armatua antolaketa mailan banatuz

erdibitzea proposatu zuten, alderdi politikoa eta antolakunde armatua antolaketa mailan banatuz. Horrela, maila formalean behintzat, antolakunde politikoak eta armatuak ez zuten lotura organikorik eduki behar.

Gainera, egoera politikoaren aldaketa dela-eta, borroka politikoak borroka armatuaren aurrean lehentasuna hartu behar zuela adierazi zuten. Ponentzian baieztatzen zutenez, borroka armatuak funtzio garrantzitsua bete zuen masen borroka urria zenean. Izan ere, klaseen arteko eta oligarkiaren barruko kontraesanak areagotzeko funtzioa bete zuen. Orain, ordea, masa mugimendua hedatzen ari zenean, ez zen funtzio bera betetzen ari. Testuinguru politiko berrian –diktaduratik demokrazia burgesera bideratutako trantsizioan–, indar errepresiboek talde armatuak kontrolpean izateko gaitasuna erakutsi zuten arren, ez zuten gaitasun bera erakutsi masen mugimendu espontaneoaren aurrean. Ponentzian adierazten zutenez, ETAre lehen urteetan ekintza-errepresioa-ekintza espirala baliagarria izan zen arren, momentu horretan espero ez zen ondorio bat sortzen ari zen: errepresioa mugimenduaren abangoardia desegiten ari zela. Adierazpen horiekin ez zuten borroka armatua albo batera utzi nahi; horren ordez, erretagoardia funtzioa esleitu nahi zitzaion. Hau da, masek borrokaren bidez lortutako baldintzak bermatzeko funtzioa izan behar zuen. Beraz, ofentsibako borroka masen borroka izan behar zela defendatzen zuten, eta borroka armatuaren funtzioa, berriz, haren bidez lortutako konkistak ziurtatzea. Hartara, alderdi politikoak gauzatu behar zuen mugimenduaren zuzendaritza, eta talde armatuak horren sostengu gisa jokatu.

1976ko irailean egin zen VII. Asanbladan *Otsagabia* ponentzia onartu zuten. Horrela, 1977an EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) alderdia sortu zen. Esan daiteke, antolakundearen erdibitzea proposatzear, milien posizioetara gerturatu zirela. Garai horretan bi antolakundeak asko gerturatu ziren, eta bien arteko batasuna posible zirudien. Hala ere, zenbait desberdintasun edukitzen jarraitzen zuten. Esaterako, borroka armatuari dagokionez, miliek abangoardia funtzioa esleitzen zioten talde armatuari.

1977ko hauteskundeei begira bi antolakundeak gehiago urruntzen hasi ziren. 1975ean KAS Koordinadora osatu zen, ezker abertzaleko antolakunde desberdinak biltzen zituen koordinakundea. 1976an KAS *Alternatiba* idatzi zuten, antolakunde independentistak batzen zituen

Ofentsibako borroka masen borroka izan behar zela defendatzen zuten Perturrek eta Errekak, eta borroka armatuaren funtzioa, berriz, haren bidez lortutako konkistak ziurtatzea. Hartara, alderdi politikoak gauzatu behar zuen mugimenduaren zuzendaritza, eta talde armatuak horren sostengu gisa jokatu

gutxieneko programa. Bertan, marko politiko berriari zilegitasuna emateko gutxieneko baldintzak jaso ziren. 1977ko hauteskundeen aurrean KASEk ez parte hartzeko erabakia hartu zuen. Izan ere, uste zuten hauteskunde horiek emateko baldintza demokratikoak ez zeudela bermatuta. Beraien ustez amnistia eta alderdi independentisten legeztatzea gutxieneko baldintzak zirenez, horiek gabe parte hartzeak marko politiko berria legitimatuko zuen. Hala ere, EIAk Euskadiko Ezkerra koalizioaren bidez parte hartzea erabaki zuen. ETA politiko-militarrak jarrera berezia hartu zuen: formalki abstentzioaren alde zegoela zioen, baina horren aldeko baldintzarik ez zegoenez, EIAren parte hartzea babestu zuen.

EIA-EEren bidez hauteskundeetara aurkezteak eragin zuen “Bereziak” taldeak behin betiko antolakundea uztea, nahiz eta, lehendik talde horren eta antolakundeko zuzendaritzaren artean liskar garrantzitsuak egon ziren. Gerora, ETA militarrean sartu ziren, eta antolakunde hori nabarmen indartu zen. Gainera, hauteskundeetara aurkezteko erabakiak ETA (pm) eta EIA KAS bloketik kanporatzea ekarri zuen. ETA (m) eta Bereziak taldeek eskatu zuten kanporaketa, eta beste kideek erabakia berretsi zuten.



1979ko hauteskundeen aurrean, miliek posizionamendua aldatu eta Herri Batasuna koalizioa hauteskundeetara aurkeztea babestu zuten. Izan ere, aurkeztearen bidez ikusgarritasuna lor zitekeela ondorioztatu zuten. Hala ere, Diputatuen Kongresuan eta Senatuan lortu zituzten eserlekuak ez zituzten okupatu. EIAk, ordea, beste modu batera jokatzeko instituzio horietan bete-betean parte hartzen zuten, lortutako eserlekuak okupatuz

1979ko hauteskundeen aurrean, miliek posizionamendua aldatu eta Herri Batasuna koalizioa hauteskundeetara aurkeztea babestu zuten. Izan ere, aurkeztearen bidez ikusgarritasuna lor zitekeela ondorioztatu zuten. Hala ere, Diputatuen Kongresuan eta Senatuan lortu zituzten eserlekuak ez zituzten okupatu. EIAk, ordea, beste

modu batera jokatzeko instituzio horietan bete-betean parte hartzen zuten, lortutako eserlekuak okupatuz.

1979an, Gernikako Estatutuen erreferendumean eman zen bi antolakundeen arteko behin betiko haustura. Milien arabera, estatutu hori onartzea etsaiaren aurrean amore ematea zen. Haien ustez, estatutuak ez zituen betetzen ordura arte ezker abertzaleak defendatzen zituen helburuak. Izan ere, ez zuen autodeterminazio eskubidea jasotzen eta Nafarroa autonomia erkidegotik kanpo uzten zuen. Polimiliek, ordea, kontrakoa uste zuen. Hori zela eta, “Estatutuarekin, presoak kalera” edo “Estatutuarekin, Nafarroa Euskadin” bezalako aldarriak erabili zituzten.

Hala ere, estatutuak haien aspirazioak beteko ez zituela jabetu zirenean, polimiliek jardun militarren intentsitatea igo zuten. 1979an, UCDko kideen kontrako kanpaina bat jarri zuen martxan. UCD Estatuaren kudeatzaile politikoa kontsideratzen zutenez, haren kideen kontrako ekintzen bidez, indarrean zegoen estatutuaren garapen osoa emateko presioa egin nahi zen. Bestalde, Lemoizen zentral nuklearra ezartzeko proiektuaren kontrako kanpaina aktiboa egin zuten.

TRANSIZIO OSTEKO URTEAK

1981ean egindako ekintza armatuek EIA-EE posizio politiko sostengaezin batean utzi zuten. UCDko kideen aurka egindako ekintzek eta Lemoizko nuklearraren proiektuaren aurka egindakoek polimilien kontraesanak agerian jarri zituzten. Izan ere, mugimendu horrek, instituzioetan bete-betean jarduten zuten alderdi bat zuten bitartean, intentsitate handiz jokatzeko antolakunde armatua zeukan. Hori zela eta, EIA-EEK bere eragin osoa erabili zuten polimilien ofentsiba gelditzeko eta estrategia berri baterako hausnarketa prozesua irekitzeko.



ETA (pm)-k eta EIAk osatutako mugimenduak, instituzioetan bete-betean jarduten zuten alderdi bat zuten bitartean, intentsitate handiz jokatzeko antolakunde armatua zeukan. Hori zela eta, EIA-EEK bere eragin osoa erabili zuten polimilien ofentsiba gelditzeko eta estrategia berri baterako hausnarketa prozesua irekitzeko



Bestalde, 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpe saiakeraren ostean, EIA-EEko zuzendaritza borroka armatuak ekarpenak baino trabak zekartzala defendatzen hasi ziren. Hori dela eta, 1981eko otsailean, ETA politiko-militarrak su-etena adierazi zuen ia urte betez, eta bahituta zituen kontsulak askatu zituen.

Militantziaren gehiengoarentzat, hura aldi baterako neurria zen, eta ez zuten borroka armatuarekin amaitzeko pausutzat. Hala ere, EIA-EEko zuzendaritzak ez zuen iritzi bera. Juan María Bandrés eta Mario Onaindia borroka armatuarekin amaitzeko negoziatzen hasi ziren Juan José Rosón ministroarekin. Negoziazio horietan ez zituzten gai politikoak landu, militante batzuentzako neurri indibidualak baizik. Horrela, norbanako batzuentzat “grazia neurriak” lortu zituzten, eta borroka armatua uztea erabakitzen zuten militanteak birgizarteratzeko aukera zabaldu zen.

1982an, barne mailan zituzten desadostasunak ikusita, VIII. Asanblada deitu zuten. Asanblada horren beharra argia zen; izan ere, borroka armatuaren inguruko desadostasun handiak zeuden. Asanblada horren ondorioa antolakundearen zatiketa izan zen. Antolakundearen gehiengoak borroka armatuarekin jarraitzea erabaki zuen, eta beren buruari ETA-pm (VIII) deitu zioten. Bestalde, EEren tesien aldekoak – borroka armatua alboratzearen aldekoak – beren burua ETA-pm (VII) izendatu zuten. Azken horiek urte horretan bertan armak utzi zituzten, eta EEk negoziatutako grazia neurriei heldu zieten denek. Horrela, 1982ko irailean, jendaurreko ekitaldi batean, antolakundea desegin zuten eta beren militanteak normaltasun legalera igaro ziren pixkanaka.

ETA-pm (VIII)-k urte batzuez borroka armatuarekin jarraitu zuen. Hala ere, zatiketaren ondoren, EEk eta haren inguru sozialak bizkarra eman ziotenez, oso ahulduta geratu zen antolakundea. Haien aldeko alderdirik ez zutenez, ezta ekintzak kanalizatzeko masa mugimendurik ere, talde armatu isolatu bat bilakatu zen. Za-

***ETA-pm (VIII)-ren
desagerpena eta gero,
ETA (m) izan zen borroka
armatuarekin jarraitu
zuen antolakunde bakarra***

***ETA (m)-k ez zuen borroka
armatua intsurrekziorako
estrategia baten
barruan ulertzen.
Horren ordez, higadura
gerra edo negoziazio
estrategiatzat zuen***

tiketak babes politiko eta sozialik gabe utzi zuen antolakundea.

Hortik aurrera, berriz ere, antolakundean hainbat joera egon ziren. Alde batetik, ETA (m)-n integratzearen aldeko joera zegoen, “mili-ki” deitzen zirenak, zeina 1984an antolakunde horretan integratu baitzen. Bestalde, ETA-pm (VIII) izenarekin era autonomoan jarraitu nahi zuen joera bat zegoen. Horiek 1986 arte jarraitu zuten, praktikoki inongo influentziarik izan gabe. Hortik aurrera ETA-pm (VIII)-ek egindako ekintzek taldea isolamendu sozialean sakontzea besterik ez zuen eragin. Hori zela eta, progresiboki indarra galtzen joan, eta disoluzio komunikaturik gabe desagertu zen.

Ordutik aurrera, ETA (m) izan zen borroka armatuarekin jarraitu zuen antolakunde bakarra. Horregatik, ETA izenez, besterik gabe, izendatzen zen. Antolakunde horrek ez zuen onartu trantsizioaren osteko marko politikoa. Hori dela eta, borroka armatuarekin jarraitzea erabaki zuen, demokraziarako gutxieneko baldintzak kontsideratzen zituenak lortu arte. Jada, borroka armatua ez zuen ulertzen intsurrekziorako estrategia baten barruan. Horren ordez, higadura gerra edo negoziazio estrategiatzat zuen. Beraz, borroka armatua ekintza-erantzuna-ekintza eskemaren bidez borrokaren eskala handitu eta boterea hartzera bideratu beharrean, etsaiak aldarrikapen konkretu batzuk onartzera bideratu zen. Horrela, Estatuari kolpe desberdinak emanaz, hura ETArekin negoziatzera behartu nahi zen. Horren guztiaren helburua Estatuak KAS Alternatiban jasotako puntuak onartzea zen. Horrela, borroka armatuaren helburua ez zen garaipen militarra lortzea, etsaia negoziatzera behartzeko presioa egitea baizik.. ●

A high-angle photograph of a massive crowd of people filling a city street, surrounded by trees with green foliage. The crowd is dense, and many individuals are holding flags. Visible flags include the red flag of the Basque People's Party (Euzko Alderdi Jeltzalea), the yellow and red stripes of the Catalan flag (Senyera), and the red flag of the Spanish Communist Party (Partido Comunista de España). Some people are also holding white flags with red crosses. The scene suggests a significant political gathering or protest.

El Aren historia laburra. Hurbilpen bat

Testua — **Urko Garmendia**

Eta bi adarretan banatu zen 1974an, politiko-militarrean eta militarrean, eta horrek bi antolaketa-egitura berri sortu zituen ETArean helburu estrategikoak aurrera eramateko. Espainiako Trantsizioaren garapenak eta erakunde bakoitzaren borroka politiko eta militarrek elkarrengandik gero eta bereiziago zeuden bi mugimendu politiko sortu zituzten. ETA (pm)-ren barruan, masa-fronte bat sortzeko ideia gero eta indar handiagoa hartzen joan zen, eta eztabaida horien ondorioa EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) sortzea izan zen.

1976ko irailean, Pertur “desagertu” eta hiru hilabetera, hark *Otsagabia* ponentzian proposatutako tesi politikoak bere egin zituen ETA (pm)-ko militantziaren zati handi batek. ETA (m)-ko bi militante behatzaile zirela, abangoardia iraultzaile gisa jokatu eta soilik esparru politikoan jardungo zuen legezko erakunde bat sortzearen auziak ardaztu zuen VII. Asanblada. ETA (pm)-ren funtzioa, Asanbladan onartutako tesien arabera, borroka armatua garatzera mugatuko litzateke, Euskal Herri Langileak hartu beharko lukeen estrategia politiko-militarraren mesedetan. Borroka armatua, aktan jasotako ebazpenen arabera, Euskal Herriko momentuko “masa-borrokaren garapen orokorraren eta mailaren arabera” izango da”. Erakunde armatuaren eta etorkizuneko “euskal langileriaaren alderdi iraultzailearen” artean ezarritako eskubide eta betebeharren bereizketak jardun politiko eta militar berrirako oinarriak ezarri behar zituen, diktadorearen heriotzarekin eta zetorren fase berriarekin sortutako koiunturaren aurrean. Masa-fronte hori sortzeko, ETA(pm)-k antolaketabatasuna defendatzen zuen eremu politikoan, “ezker abertzale” gisara ezagun egiten hasia zena ordurako.

KAS Alternatiba (Koordinadora Abertzale Sozialista) 1976ko abuztuaren aurkeztu zen, “osatzen duten erakundearen arteko nahitaezko eztabaida-mahai” gisa, eta horrek aldaketa garrantzitsua ekarri zuen koiunturan. EHASEk (Euskal Herriko Alderdi Sozialista), ETA (pm)-k eta LAIAk (Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia), fundatzaile gisa, ETA (m)-ren eta LABen laguntzarekin, gutxieneko programa bat adostu zuten, garai hartako espektror politiko osorako batasun programa politiko bat finkatzen joatea helburu. Lehen idatzi horren ardatz nagusietako batzuk honako hauek izan ziren: amnistia, askatasun demokratikoak, Hego Euskal Herriko lau probintzietarako


ETA (m)-ko bi militante behatzaile zirela, abangoardia iraultzaile gisa jokatu eta soilik esparru politikoan jardungo zuen legezko erakunde bat sortzearen auziak ardaztu zuen VII. Asanblada

Autonomia Estatutua sortzea edo gorputz errepresiboak desagitea.

KASen ekintza-batasunerako joera hori hautsita geratu zen alternatiba gisa aurkeztu eta hilabete gutxira. LAIAko sektore batek, LAIA (ez) izenekoak –kontseiluen komunismoari gertuko korronea–, Alternatibatik aldentzea erabaki zuen, eta LAKEko (Langile Abertzaleen Komiteak) militante batzuekin batera, KAA (Komando Autonomo Antikapitalistak) sortu zuten. ETA (pm)-ren barruan Komando Berezien zatiketa gertatu zen.

Testuinguru horretan aurkeztu zen EIA 1977ko apirilaren 2an, 4.000 pertsonaren aurrean, Gallartako (Bizkaia) frontoian, langile-nortasun errotua duen herrian. ETA (pm)-ko militante ohien multzo garrantzitsu batek osatu zuen alderdiko lehen militantzia, zuzendaritza lan nagusiak bere gain hartuz. Horiekin batera, erakunde armatuarekin aldeztu aurretik loturarik ez zuten pertsonak, Francisco Letamendia “Ortzi”-k kasu, alderdiarekin bat egitea erabaki zuten. Aurkezpen-mitinari dagokionez, harrigarria izan zen Euskal Herrian hain jendetsua zen ekitaldi politiko batek poliziaren esku-hartzerik jasan ez izana, urte horietan ohikoa baitzen mitinak, manifestazioak eta batzarrak polizia-sirenaz eta tiro-hotsez desegin behar izatea.

1977ko udaberria bereziki gorabeheratsua izan zen Euskal Herrian. Gatazkak gero eta handiagoak ziren lantegietan eta kaleetan. Herriarren aldarrikapenak, amnistia osoak kasu, gero eta babes handiagoa zuten herritarren artean, eta manifestazioek gero eta izaera borrokalaria hartu zuten. Maiatzeko Amnistiaren Aldeko Astearen deialdian, Espainiako Poliziak zazpi



EAJk hauteskundeetara baldintzarik gabe aurkezteko asmoak, eta ETA (m)-k eta EHASEk amnistia eta askatasun politiko osoa parte-hartzearen aurretik jartzeak eragotzi egin zuten espazio abertzale osoaren balizko baterajotzea. Zatiketa horren ondorioz, EAJk bere kabuz parte hartu zuen hauteskundeetan, eta ETA (m)-k abstentzio aktiboa eskatu zuen. EIAk hauteskundeetara aurkeztuko zen koalizio baten sorreran parte hartu zuen

manifestari hil eta ehunka zauritu zituen Hego Euskal Herriko hainbat lekutan. Langileen grebak areagotu egin ziren, baita langileen aldarrikapenak gauzatzeko presio-neurriak ere. Aldi berean, Espainiako hauteskondeek hainbat eztabaida eta ikuspuntu planteatu zituzten erakunde abertzaleetan. Telesforo Monzonen ekimenez, eta egoera politiko berriaren aurrean ikuspegiak gerturatu asmoz, erakunde abertzale guztiak Txibertan (Lapurdi) elkartu ziren.


EAJk hauteskundeetara baldintzarik gabe aurkezteko asmoak, eta ETA (m)-k eta EHASEk amnistia eta askatasun politiko osoa parte-hartzearen aurretik jartzeak eragotzi egin zuten espazio abertzale osoaren balizko baterajotzea. Zatiketa horren ondorioz, EAJk bere kabuz parte hartu zuen hauteskundeetan, eta ETA (m)-k abstentzio aktiboa eskatu zuen. EIAk hauteskundeetara aurkeztuko zen koalizio baten sorreran parte hartu zuen. Hauteskundeetan parte-hartze horrek hautsi egiten zuen KAS Alternatibaren gehiengoaren borondatea, eta EIAk hauteskundeetan parte hartzeko borondate argia zuenez, KAS Alternatiba utzi behar izan zuen, eta ondorioz, ezker abertzalearen barruko bi mugimendu nagusien artean arrakalak ireki ziren.

Koalizioa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bakarrik aurkeztu zen, “Euskadiko Ezkerra” izenpean. Nafarroan, EIAk UNAI (Unión Navarra de Izquierdas) koalizioaren barruan parte hartu zuen hauteskundeetan, EMKrekin eta OICrekin (Organización de Izquierda Comunista) batera, espazio politiko bera bete asmoz. Hauteskunde horietan, gerora ezker abertzaleko izen enblematikoak izango ziren Periko Solabarria, Iñaki Eснаola eta Patxi Zabaleta aurkeztu ziren bi koalizio

horietan. Ortzik eserleku bat lortu zuen Diputatuen Kongresuan Gipuzkoan. Probintzia horretan bertan, EEk beste eserleku bat lortu zuen, kasu horretan Senatuan, Juan Mari Bandresentzat. Hego Euskal Herrian lortu zituzten ia 86.000 botoek, bi ordezkari instituzionalen bitartez, bultzada eman zioten hasieratik koalizioari. Koalizio horretan EIArena izan zen hasieratik gidaritzza.

Hauteskundeak egin eta hilabetera, Askatasunaren Ibilaldia antolatu zen Euskal Herrian, batik bat EIAren babesa zuen ekimen plurala, hauteskundeetan abstentzioaren alde egin zuten gainerako erakundeez gain. Ekitaldian, milaka lagunek parte hartu zuten, lau zutabetan banatuta, eta une egokia izan zen hamar euskal militante politiko jendaurrean agertzeko, Espainiako Gobernuak Belgikara estraditatu berriak, Espainiako kartzeletan hainbat urte eman ondoren. Horien artean, pisu sinboliko handiko figurak zeuden, hala nola Teo Uriarte edo Mario Onaindia. 1977ko uztaillean ustekabean Hego Euskal Herrira itzuli ziren militante horiek Burgosko Prozesuan epaitu zituzten, eta, azkenean, erabakigarriak izan ziren EIAren eta EEren barruan. Onaindia, urtearen amaieran, batzar orokor batean aukeratu zuten EIAko idazkari nagusi, eta eragin handia izan zuen alderdiaren barruan.

Amnistiaren legea, urte hasieratik zenbait sektore politikorekin landua eta 1977ko urrian Suarezren UCDren gobernuak onartua izan zen, eta ETA(pm)-ko eta ETA (m)-ko militante ugari kartzeletatik ateratzea ahalbidetu zuen. Hilabeteak pasa ziren estradizioa eta ondorengo Euskal Herriratzte “alegala” hasi zenetik, ETA (pm)-ko azken militantea atera zen arte. Preso politiko ohien zati handi batek garai hartan loratu ziren



1978ko hasieran lortu zuen EIAk estatus legala, estatutuetan aldaketa batzuk onartu ondoren. Mario Onaindiak, hedabideei egindako adierazpenetan, mugimendu hura helburu berberak lortzeko formulazio desberdina zela defendatzen zuen, alegia, «euskal estatu baten sorrerara begira, burgesiaren estatu-aparatuaren desegitea» bilatzen zela. Estatutu berrietan jaso behar izan zuten aldaketa nagusia independentzia hitza ezabatzea izan zen



proposamen politiko ezberdinekin bat egitea erabaki zuen. EIA sortu ondoren, ETA (pm)-ren jarduera militarra nabarmen murriztu zen. ETA (m)-k, aldiz, gaitasun militarra handitu zuen, eta, horrekin batera, aldi horretan egindako ekintza militarrek areagotu.

Bakarra ez izan arren, EIA hauteskundeetara koalizio zabalagoen barruan aurkezteko arrazoietakoa bat alderdiaren egoera legala zen. Bere sorreran eta Espainiako lehen hauteskundee-tan ilegala izandako alderdiak 1978ko hasieran lortu zuen estatus legala, estatutuetan aldaketa batzuk onartu ondoren. Mario Onaindiak, he-dabideei egindako adierazpenetan, mugimendu hura helburu berberak lortzeko formulazio desberdina zela defendatzen zuen, alegia, «euskal estatu baten sorrerara begira, burgesiaren estatu-aparatuaren desagitea» bilatzen zela. Estatutu berrietan jaso behar izan zuten aldaketa nagusia independentzia hitza ezabatzea izan zen.

1978ko urte politikoa egituratu zuen gaie-tako bat Euskal Kontseilu Nagusiaren sorrera izan zen, euskal autonomiaren aurreko orga-noa, etorkizuneko Eusko Jaurlaritzarako eta ha-ren Autonomia Estatuturako oinarriak ezartzea helburu zuena. EIAk, EEren bidez, proposamen hori onartu zuen, eta Juan María Bandres talde horretara gehitzea lortu zuen, prozesu horretan ikuspegi eraikitzaile batekin parte hartuz. Era-baki horrek, ezker abertzalearen barruan, bi sektoreen arteko arrakala nabarmen areagotu zuen; bata EIA-EEK ordezkatzeko, eta bes-tea KAS Alternatibak. KAS Alternatibak erreforma instituzionalaren aldaera ezberdinetan par-te hartzeari uko egiteak barne-tentsioak sortu zituen EIA-EEen. Bi urte atzera ETA (pm)-ren VII. Asanbladan adostutako masen fronte iraultzaile zabala sortzeko ideia erabat agortuta zegoela zi-rudien. EIAri buruz gizarteak zuen pertzepzioa aldatu egin zen, jada ez baitzen Espainiako erre-gimen kapitalistarekiko alderdi apurtzailea, eta kalearekiko gero eta distantzia handiagoa zego-nez, alderdiko figura batzuk orduan sortu be-rria zen Herri Batasunara gerturatu ziren. KAS Alternatiba babesten zuten alderdien koalizioa zen Herri Batasuna, eta EIA-EEren barruan gero eta indar handiagoa hartzen ari zen bide auton-omista baztertzen zuen. Alderdia utzi zuen per-sonarik sonatuena Ortzi Espainiako Kongresuko Gipuzkoako legebiltzarkidea izan zen, baina Pe-

Bi urte atzera ETA (pm)-ren VII. Asanbladan adostutako masen fronte iraultzaile zabala sortzeko ideia erabat agortuta zegoela zirudien. EIAri buruz gizarteak zuen pertzepzioa aldatu egin zen, jada ez baitzen Espainiako erregimen kapitalistarekiko alderdi apurtzailea, eta kalearekiko gero eta distantzia handiagoa zegoenez, alderdiko figura batzuk orduan sortu berria zen Herri Batasunara gerturatu ziren. KAS Alternatiba babesten zuten alderdien koalizioa zen Herri Batasuna, eta EIA-EEren barruan gero eta indar handiagoa hartzen ari zen bide autonomista baztertzen zuen

riko Solabarria edo Iñaki Esnaola bezalako izen garrantzitsuek ere bide bera hartu zuten. Oina-rriko militante batek idatzitako hitzok aurkatuak izan ziren alderdiko zuzendaritzaren partetik, hain zuzen, bide autonomistan sakontzen jarrait-zeko; eta argigarriak dira ondo islatzen baitute militantziak bi urte lehenago adostutako ildo es-trategikoaren eta zuzendaritzaren ekintza politi-koaren arteko kontraesan nabarmena: “UCDren logika bere sistema politikoa berrantolatzen saiatzen den oligarkia batena da; EIAren logika, berriz, oligarken demokrazia ezegonkortzea da, askatasunetan sakontzea, langile-demokrazia eta herri-boterea eraikitzen eta sendotzen joa-tea. Ezinezkoa da EIA eta UCD bat etortzea be-rehalako proiektu politikoetan, eta ezinezkoa da oligarkiak onartutako proiektu batek herri-inte-resak islatzea”.

Euskadiko Ezkerrari lotutako desberdintasun politikoek zein antolaketa mailakoek ez zituz-ten EIAren barruan bakarrik ondorioak ekarri. Euskal Kontseilu Nagusian parte hartzearekin eta koalizioaren erabakietan bigarren mailako zeregina izatearekin ados ez zeudenez, EMK-k koalizioa uztea erabaki zuen 1978an bertan, eta EIA geratu zen, independente gutxi batzuekin batera, koalizioko kide gisa.


EEren sigle panorama politikoan hartu zu-ten protagonismoa ez zectorren bat EIAk sorre-rako eta ondorengo hilabeteetan ustez zeukan euskal langileentzako abangoardiako alderdia-ren ikuspegiarekin. Koalizio batek “Abangoar-

diako alderdia” xurgatua zuen; koalizio hura, praktikan, eta are gehiago EMKrekin izandako desadostasunen ondorioz azken horiek koalizioa utzi eta gero, alderdiaren kontrolpean zegoen. Pragmatismoaren eta errerealismoaren logikak «euskal estatu sozialista eta independentea» eraikitzeke edozein asmo desagerrarazi zuen bide-orritik.

Ortzik, EIA-EE utzi arren, hilabete batzuetan bere eserlekuari eustea erabaki zuen, Diputa-tuen Kongresura euskal langileriaren aldarri-kapenak eramanez, hala nola autodetermina-zioa, euskararen defentsa edo estatu sozialista baten eraikuntza. Azkenean, eserlekuari uko egitea erabaki zuen, erreferendumera eraman behar zen Konstituzioari egindako zuzenketak Kongresuan atzera bota ondoren. 1977ko hautes-kundeetan Parlamentuan ordezkaritza handiena zuten alderdietako ordezkariak (UCD, PSOE, AP, PCE eta CDC) egindako konstituzio-proposame-na eraman zen erreferendumera 1978ko aben-duaren 6an. Konstituzio proposamenak Espai-niako Estatuko lurralde gehienetan izan zuen babesa; aldiz, kontrastea handia zen Hego Eus-kal Herrian izandako abstentzio handiari erre-paratuz gero. Hego Euskal Herriko biztanleek eskatzen zituzten aldarrikapen nagusiak jasot-zen ez zituenez, hainbat alderdik abstentzioaren edo ezezkoaren aldeko apustua egin zuten. EIA-ren kasuan, erreferendumean parte hartzearen alde egin zuten, eta ezetza eman zuten Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan.

1979an, borondate apurtzailea behin betiko desagertu zela baieztatu zen. Martxoan, erreferendum konstituzionalaren osteko lehen hauteskunde orokorrak deitu ziren. EEk, emaitzei eustea lortu arren (Juan Maria Bandres, Gipuzkoatik), kolpe gogorra jasan zuen. Herri Batasunak, lehen aldiz koalizio gisa aurkeztuta eta ondorengo lau urteetako politika instituzionalan aktiboki parte hartzeko borondaterik gabe, lidergoa kendu zion. EIAren Bigarren Kongresuaren helburua “ildo politikoa autonomiaren aldeko borrokaren etapara egokitzea” izan zen. Aurreko urtean militante askok alde egin zuteenez, ez zen egon desadostasun handirik eta bide orri berri hori onartu egin zen. Urte horretara arte ETA (pm)-ren eta EIAren artean egondako oreka pitzatzen hasi zen erakunde armatuak hilabete batzuk lehenagotik indarrean zuen su-etena hautsi zuenean. EIAren zuzendaritzak bultzatutako lerro erreformistaren ondorioz mesfidantza politikoa areagotu egin zen. Zuzendaritzak hartu zuen abangoardia paperak erakunde armatua are gehiago urruntzea eta jarrera kritikoa hartzea eragin zuen. Madrilen egindako ekintza militar baten kariatara Juan Maria Bandresek ETA (pm)-ren aurka egindako kondenaren ondorioz, ordura arte EIA eta ETA (pm)-ren artean zegoen sinbiosia hautsi egin zen.



Gainera, alderdiaren zuzendaritzak alderdiaren sorrerako printzipio ideologikoei inoiz uko egin ez ziela defendatu arren, Euskadiko Autonomia Estatutuaren aldeko kanpaina aktiboa egin zuten, Estatutuaren eraketa prozesuak autodeterminaziorako eskaintzen zituen aukerak zeinen mugatuak ziren jakitun izanda ere. ETA (pm)-k, bere alderdiarekin tentsioa gero eta handiagoa izan arren, 1979ko urriko erreferendumean Estatutuari babesa eman zion, eta herritarrak aldeko botoa ematera deitu zituen. Erreferendum hark aurrera egin zuen emandako



botoen % 90ak alde bozkatuta, baina gizartearen % 40ko abstentzioarekin –batez ere Herri Batasunak eta ETA (m)-k sustatua–.

Estatutua erreferendum bidez onartzeak ez zituen kontuak baretu alderdiaren eta erakunde armatuaren artean. Lehen hauteskunde autonomikoak gainean zeuden, eta ETA (pm)-k atxilotetak eta errepresioa jasaten ari zen, eta antolakundeak planteatzen zituen ekintza militarrek ez ziren onargarriak EIA-EEko zuzendaritzarentzat. Ekintza militar horiek batez ere UCDren inguruaren aurkakoak izan ziren, Nafarroa Hego Euskal Herriko gainerako probintziekin batzea eta euskal preso politikoak askatzea bezalako eskakizunak gauzatzeko helburuarekin. Hego Euskal Herriko hauteskundeek emaitzak berretsi egin zuen Herri Batasunarekiko lehia politikoan zuen gutxiagotasun egoera; izan ere, EIA-EEren eserlekuak (6 vs 11) eta botoak ia bikoiztu egin zituen Herri Batasunak.


EEren siglek panorama politikoan hartu zuten protagonismoa ez zetorren bat EIAk sorrerako eta ondorengo hilabeteetan ustez zeukan euskal langileentzako abangoardiako alderdiaren ikuspegiarekin. Koalizio batek "Abangoardiako alderdia" xurgatua zuen; koalizio hura, praktikan alderdiaren kontrolpean zegoen. Pragmatismoaren eta errealismoaren logikak «euskal estatu sozialista eta independentea» eraikitzeko edozein asmo desagerrarazi zuen bide-orririk




UCDren aurkako erasoaldi militar hori areagotu egin zen hauteskundeak igaro ondoren, eta ETA (pm)-k, ordurako aspalditik bere jarduera murriztua izan arren, hainbat ekintza gauzatu zituen. 1980an ETA (pm)-ren hainbat ekintza kritikatu ziren berriro, orduko hartan Mario Onaindiaren ahotik. ETA (pm)-k erabilitako metodoak gero eta bateraezinagoak zitzaizkion alderdiko zuzendaritzari bere praktika politikoa garatzeko, eta jarduera militarra bertan behera uzteko eskatzen hasi ziren. Eztabaida-aldi baten ondoren, apurka-apurka arrakala hori ixten hasi zen. 1981eko otsaileko Estatu Kolpea eman eta sei egunera, ETA (pm)-k su-etena aldarrikatzea erabaki, eta aste batzuk lehenago bahitu zituen kontsulak askatu zituen.

Su-etenenaren iragarpenak hurrengo hilabeteetan gertatu ziren hainbat gertaera bizkortu zituen. Espainiako Gobernuaren eta ETA (pm)-ren arteko elkarrizketak egin ziren militantzia armatua bizitza zibilera itzultzeko xedez, eta aldi berean, EIA Euskadiko Ezkerran desegiteko prozesua eman zen. Desegitea alderdiaren beraren zuzendaritzak proposatu zuen ElAren III. (eta azken) Kongresuan, 700 ordezkariaren aurrean. Euskadiko Ezkerraren ikuspegia koalizioa izatetik alderdi gisa eraikitzen pasatzen zen, eta asmoa espektro politiko zabal, euskadizale eta ezkertiarra hartzen zen, Euskadiko PC edo EAJ bezalako alderdiekin zubiak eraiki nahian. Kongresuaren ebazpen hura hasiera batean EIAk euskal langile-klasearen askapenaren aldeko abangoardia gisa bete behar zuen zeregin politikoaren behin betiko ukapena eta suntsiketa izan zen. Espainiako instituzioetan erabat integratzeko praktika politiko progresibo batek eraman zituen horretara, eta tokitan utzi zituzten Perturrek, bere erailketaren aurretik, *Otsagabia* ponentzian idatzitakoak. ●

Espainiako Gobernuaren eta ETA (pm)-ren arteko elkarrizketak egin ziren militantzia armatua bizitza zibilera itzultzeko xedez, eta aldi berean, EIA Euskadiko Ezkerran desegiteko prozesua eman zen. Desegitea alderdiaren beraren zuzendaritzak proposatu zuen ElAren III. (eta azken) Kongresuan







Pertur, 50 urte zain

Testua — **Orhi-Xabier Zabaleta Ikatzeta**

Urteurren garaiak datoz. Franco hil zenetik 50 bira eman zituen lurrak eguzkiaren inguruan iaz; Ogro operazioetik 53 aldiz oihukatu da “urte berri on”. Zerrendak jarrai lezake.

Egutegietan atzera begiratzeko garai hauetan, badaude ahortzi diren kasuak ere. Batzuetan erabat ahaztu ez badira ere, ondorengotza politikoek gizabanakoen oroimena korapilatu dute.

1976ko uztailaren 23az geroztik ez du inork ikusi Pertur. Desagerrarazi egin zuten. Aipatutako egunaren aurretik gertatutakoak behatuz, *in crescendo* joan ziren Perturren eta bere ingurukoaren aurkako ekintzak. Ematen du, beraz, zoriz gaitza aurreikusten zela, idatzia zegoela nonbait. Hariaren korapiloa uztailaren 23an estutu zen, baina lehenagotik ere ari ziren hariak nahasten.

1976ko martxoan, ABCK, ETA politiko-militarrak zerga iraultzailea eskatzeko bidalitako gutun bat atzeman ondoren, gutun horren edukia berri eman zuen. Bertan jasotzaileari eskatzen zioten Perturrekin, Ezkerrarekin, Mark-ekin edo zehaztutako beste etakideren batekin harremanetan jartzeko. Hilabete berean, Perturren eta J.L. Echegaray “Mark”-en erretratuak argitaratu zituen ABCK, eta Angel Berazadi enpresaburuaren bahiketaren erantzuleztat jo zituen. Bahiketaren oihartzunaz haratago, argazki harekin Pertur pertsonifikatu egin zuten eta haren aurpegiak tokia hartu zuen iritzi publikoan. Jada ez zen soilik ETA (pm)-ko buruzagitzaren izena, baizik eta itxura zehatzeko gizabanakoa.

Garai haietan, ETA (pm)-k bi polizia-inspektore bahitu zituen Hendaian; Jesús María González eta José Luis Martínez. ABCK 1976ko apirilaren 7an ETA (pm)-ri egotzi zion erantzukizuna eta, gainera, ekintza estrategikotzat definitu zuen, momentu hartan bahituta zegoen Angel Berazadi askatzeagatik Espainiako Gobernua 200 milioi pezeta ordaintzera behartzeko.

1976ko apirilaren 8an, Espainiako Estatuak negoziatzeari uko egin ondoren, ETA politiko-militarrak Berazadi hil zuen, hiru astez bahituta izan ondoren. *Unidad* egunkari donostiarrak azalean atera zuen berria: “*Berazadi, asesinado*”. Enpresaburua hilda, Pertur ETA (pm)-ren zuzendaritzan kokatu zuten bai egitura polizialek eta bai prentsa orokorrak –erakunde armatuaren eta berazaditarren arteko zubia izan omen zen negoziaketan-. Erailketak eragindako astinaldi

1976ko uztailaren 23az geroztik ez du inork ikusi Pertur. Desagerrarazi egin zuten

politikoaren aurrean, Fraga Iribarnek mehatxu garbia jaurti zuen, “*Si quieren guerra, la tendrán*”. Esan daiteke Fraga ez zebilela oker, gerraren logikak harrapatu baitzuen Pertur handik hilabete batzuetara.

Hurrengo hilabeteek ere ekaitz-giroan jarraitu zuten: odoltsu, berunak eraginda. Testuinguruaren adierazle esanguratsuenetakoa izan zen La Voz de España egunkariak maiatzaren bosgarrenean zabaldutako datua: mertzenarioek hamar milioi pezeta jasoko zituzten etakideak hiltzeagatik: “*Diez millones para matar a quienes mataron*”. Albiste hartan, Pertur fronte militarreko buru kokatu zuten. Giroa bortitza zen, eta, horri ordainsari kodiziatsua gehituta, gezi guztiek norabide berdintsua zuten.


1976ko uda betean, Perturren familiak egoera larriak bizi izan zituen. Lehendabizikoz, ekainean, familiak mehatxu idatziak jaso zituen eta etxea metrailaz erasotu zuten. Uztailaren 15ean, Pertur bahitu baino zortzi egun lehenago, Marta Bergaretxe, Perturren ama, atxilotu eta giltzaperatu egin zuten Irunen, Eduardo López Maturana inspektorearen agindupean. Galdeketa gogorra egin zioten, apirilaren 4an Hendaian desagertutako bi polizia-inspektoreen harira. Desagertutakoen egonlekuaz informazio bila zebiltzan.

La Voz de España egunkariak maiatzaren bostean argitaratu zuenez, mertzenarioek hamar milioi pezeta jasoko zituzten etakideak hiltzeagatik: “Diez millones para matar a quienes mataron”



1976ko uztailaren 23an, azken aldiz ikusi zuten Pertur. Hurrengo egunetan, familiak salaketa jarri zuen Frantzian –handik gutxira Gipuzkoan– eta Triple Ak ekintza egin izana erreibindikatu zuen. 27an azaldu ziren aurreneko albisteak prentsan, denak antzeko titularrekin: Perturren desagerpen misterioitsua, mende erdia igaro duena argitu gabe, gaur egunera heldu arte. *Unidad* arratsaldeko egunkari donostiarrak jakinarazi zuen “ETAKo aktibista” Perturrek Behobian zuela hitzordua ostiralean, eta, harrezkero, bere jardunbidea lainotu egin zela, arrastorik utzi gabe. Perturren gurasoak semearen bahitzaileei zuzendu zitzaizkien, etsipenak jota eta emozioak eraginda: “Bizirik badago, esaiguzue; hilda badago, entregatu gorpua”. Erregu horren ondoren, BVEk gutun bat eman zuen argitara, exekuzioa eta lurperatzea bere gain hartuz. “*Ojo por ojo, ¡Viva la unidad de España!*” esanez bukatu zuten idazkia. Horren aurrean, justizia-gosea Euskal Herri osora hedatu zen eta, uztaila bukaeran, manifestazioa egin zen Donostian, “Salba dezagun Pertur” lelopean.

1976ko uda betean, Perturren familiak egoera larriak bizi izan zituen. Lehendabizikoz, ekainean, familiak mehatxu idatziak jaso zituen eta etxea metrailaz erasotu zuten. Uztailaren 15ean, Pertur bahitu baino zortzi egun lehenago, Marta Bergaretxe, Perturren ama, atxilotu eta giltzaperatu egin zuten



Perturren gurasoak semearen bahitzaileei zuzendu zitzaizkien, etsipenak jota eta emozioak eraginda: “Bizirik badago, esaiguzue; hilda badago, entregatu gorpua”. Erregu horren ondoren, BVEk gutun bat eman zuen argitara, exekuzioa eta lurperatzea bere gain hartuz. “Ojo por ojo, ¡Viva la unidad de España!” esanez bukatu zuten idazkia

ETA (pm)-k eginiko ikerketa sakonak José María Escudero Tejada seinalatu zuen Perturren bahiketaren erantzule gisa. Bahiketaren ardura-dunari izen-abizenak jartzeak ezegonkortasuna eragin zuen eta Espainiako prentsak Perturren hurbileko zirkuluei egotzi zien erantzukizuna. *La Voz de España* Migel Angel Apalategi “Apala” jarri zuen erdigunean. ABCk, irailaren 5ean, erailketaren ustezko xehetasunak ere eman zituen. Egunkariaren esanetan, Pertur Apalaren autora sartu zen eta hark bi tiro jo zizkion, burua zaku batekin estali ondoren.

Informazio horren aurrean, gutxitan ikusi den bezala, Apalak berak indibidualki sinatutako gutuna eskuz idatzi eta zabaldu zuen, bere errugabetasuna defendatuz eta prentsa espainiarraren bertsioa gezurtatuz. “*A todo el pueblo vasco*” tituludun eskutitzean, hilketaren erantzuleak Montejurra eta Santurtziko gertakarien erantzuleen parekoak zirela adierazi zuen, hots, Espainiako Estatuko errepresioaren adarretakoak. Bere seinalamendua kanpaina bat zela salatzen zuen aldi berean. Apalak ez zuen zalan-tzarik Euskadi barnetik zatitzeko eta konfrontazioa hedatzeko ereindako informazioa zela eta,

horrenbestez, herri osoari dei egin zion gezurra salatze eta Euskadiren askatasun osoaren alde borrokatze.


Urteurren garaia da, 50 urte, justiziaren zain. Korapiloa ez da laxatu. ●

ETA (pm)-k eginiko ikerketa sakonak José María Escudero Tejada seinalatu zuen Perturren bahiketaren erantzule gisa. Bahiketaren ardura-dunari izen-abizenak jartzeak ezegonkortasuna eragin zuen eta Espainiako prentsak Perturren hurbileko zirkuluei egotzi zien erantzukizuna

OTSAGABIA **PONENTZIAK** **50 URTE**

PERTUR ETA KASEN ARTEKO
ELKARRIZKETA

Testua — **Vaptsarov**



Espainiako Trantsizioa une erabakigarria eta kontraesankorra izan zen Euskal Herriarentzat: ez zen frankismoaren itxiera soila izan, baizik eta baita menderakuntza politikoaren berreraiketa ere, klase borroka azkartuaren testuinguruan. Agertoki horretan, Eduardo Moreno Bergaretxe “Pertur”-ek, ETA (pm)-ko ideologo gazteak, testamentu politiko baliotsua utzi zuen desagertu aurretik: erakundearen VII. Batzarreko *Otsagabia* ponentzia eta *Arnasa* dokumentua, Euskal Herrian gehien garatu den alderdi iraultzailearen teoria leninista, gerora faltsutua eta ahaztua izan bada ere.

PERTUR ETA OTSAGABIA PONENTZIA

Eduardo Moreno Bergaretxe “Pertur” ETako militante komunista eta abertzalea izan zen, frankismoaren azken aldian eta Trantsizioaren hasieran aktibo egon zena. Donostian jaio zen, eta bere militantziaren hastapenak errepresio frankistaren testuinguruak eta klandestinitateko jarduera politikoak markatu zituen, zirkulu marxistetan lehenik eta, ondoren, ETAn. Bere ibilbidearen ezaugarri nagusia nazionalismoaren, sozialismoaren eta ekintza armatuaren arteko harremanari buruzko etengabeko kezka izan zen, bai eta garai hartako antolakuntza-modu sakabanatuek eskaintzen zituztenak baino antolaketa-metodo sendoagoak bilatzea ere. Burkide ohiek profil teoriko gisa ez ezik, “ekintza-gizon” gisa ere deskribatzen zuten, eta erakunde armatuaren barruan eragin handia zuela adierazten zuten.

1976ko udan, lehenbiziko eztabaidak ireki ziren ETaren bi adarretan estrategiari eta bi adar horiek batzeko saiakerei buruz. Momentu horretan, Perturrek, ETA (pm)-ko Bulego Politikoko kideak, *Otsagabia* ponentziaren hiru zatietatik lehena aurkeztu zuen erakundearen VII. Batzarrean. Historiografiak *Otsagabia* ponentzia osoa balitz bezala hartu ohi du lehen zati hori, oso-osorik Perturrek idatzia; hala ere, badira bigarren eta hirugarren zati bana ere. Bigarren zatia fisikoki desagertu zen 1976ko uztailaren 23an, eta Perturren ekarpenetan oinarriturik berreraiki behar izan zen, eta hirugarrena, berriz, Javier Garayalde “Erreka”-k egin zuen.

Planteamendu hori ETako militantziaren aurrean aurkeztu zuen Perturrek, 25 urte besterik ez zituela, tentsio politiko goreneko testuinguruan: diktadura frankista irekiera-zantzuak erakusten ari zen, masen mobilizazioek Erregimenaren legezkotasuna gainditzen zuten, legezko eta erdi le-

gez kanpoko erakunde berriak sortzen ari ziren, oposizioko ordezkari politikoak behin-behineko bat-egite instituzionala negoziatzen ari ziren, Estatuairekiko konfrontazioak bizia izaten jarraitzen zuen eta kuarteletan sable-zarata ez zen ixiltzen. Ur nahasi horien erdian, ponentziak estrategia argi bat laburbildu nahi zuen garai berri eta kontraesankorretara egokitutako alderdi-mugimenduentzat; hain zuzen ere, klandestinitatean zein legezkotasun partzialeko espazioetan esku hartu ahal izateko eta, bizi zuten sakabanaketaren aurrean, ENAMi eta indar langile eta abertzaleei proiektu koherente bat emateko. Perturren esku-hartzea, beraz, ez zen gutizia teorizista bat izan; kontrara, militantziak baldintza oso zail eta aldakorretan nola jokatu behar zuen orientatzen saiatzen zen, borroka klandestinoan eta frankismo berantiarreko masa-borrokan metatutako indarrak zapuztu zitzaketen akatsak eta urrats faltsuak saihesteko. Hala, jarraian azalduko ditugunak izan ziren Perturren eskemaren ideia nagusiak *Otsagabia* ponentzian.

KOIUNTURA HISTORIKOAREN AZTERKETA: TRANTSIZIOA, UNE HISTORIKO IREKI ETA KONTRAESANKORRA

Perturrek koiuntura historiko zehatz baten irakurketan oinarritu zuen bere proposamen estrategikoa: Trantsizioa. Ideologo donostiarrak ez zuen inoiz ukatu Trantsizioaren izaera telegidatua eta burgesa; eta, hala ere, egoera ireki, kontraesankor, klase-borrokaren emaitza zuzen eta, beraz, eztabaidagarri gisa ulertzen zuen. Haren aburuz, Trantsizioa ez zen frankismoari jarraipena ematen zion maniobra burutua soilik, eta prozesuaren ikuspegi askoz dialektikoagoa planteatu zuen. Hala, Francoren heriotzak ez zuen gatazka ixten, baizik eta dominazio modu berrietara lekualdatzen zuen premia historikoak eta masen presioak bultzatuta, non adostasunean, askatasun formaletan eta demokrazia burgesaren erakundeetan oinarritutako elementu politikoak erantsi zitzaizkien dominazio modu horiei, eta horien aurrean ez zegoen geldirik geratzeko paradarik.

Bada *Otsagabia* ponentzia bera baino dokumentu ezezagun eta, ziur aski, garrantzitsuago bat: *Arnasa*, *Reagrupamenduko taldeetarako aztergaiak*, EIAk 1976an argitaratutako seriearen lehen alea. Dokumentu horretan, Perturrek, beste gai estrategiko batzuen artean, Trantsizioari buruzko ikuspegi hori modu garatuagoan azaldu zuen: berehalako koiunturatik haratago

Perturrek, ETA (pm)-ko ideologoak, ohartarazi zuen zetorrena ez zela diktaduraren jarraipen hutsa, ezta ezkutuko faxismoa ere, baizik eta frankismotik jasotako elementuak zein berezitasunak zituen demokrazia burgesa. Beraz, Euskal Herrian egiteke zegoen iraultza ezin zen iraultza demokratiko-herrikoi bat izan, non Estatua negoziatzera behartu behar zen; iraultza horrek iraultza proletarioa izan behar zuen

zihuon argitasunez azaldu zuen bere ikuspegia, eta aurrerapen teoriko-politiko garrantzitsua egin zuen. Perturrek, ETA (pm)-ko ideologoak, ohartarazi zuen zetorrena ez zela diktaduraren jarraipen hutsa, ezta ezkutuko faxismoa ere, baizik eta frankismotik jasotako elementuak zein berezitasunak zituen demokrazia burgesa. Beraz, Euskal Herrian egiteke zegoen iraultza ezin zen iraultza demokratiko-herrikoi bat izan, non Estatua negoziatzera behartu behar zen; iraultza horrek iraultza proletarioa izan behar zuen. *Arnasa* dokumentuan, Perturrek argudiatzen zuen masa-izaeradun nekazari-klaserik ez zegoenez, klase popularren blokea ia osorik proletarizazio prozesuan zeuden soldatapeko langileek osatzen zutela, eta, beraz, egiteke zegoen iraultza bakarra sozialista zela ordurako. Bereizketa hori ez zen txikia, ezta akademikoa ere: helburu estrategikoa eta zeregin horretarako behar zen antolaketa mota zehazten zituen.

Ondorioz, borroka-eremua ere handitu eta

aldatu beharra zegoen. Perturrek behin eta berriz zioen Trantsizioa ezin zela irakurri ez garai- pen, ez behin betiko porrot gisa. Herri-borrokak abiarazitako *impasse* bat zen, baina, aldi berean, oligarkiak eta Erregimenak instrumentalizaturik zegoen, frankismoaren aurkako erresistentziak murriztutako klase boterea berrosatzeko. Hor- tik dator bere ohartarazpen nagusia: eszenato- ki berri horretan iraultzaileek ez bazuten esku hartzen estrategia egoki batekin, beste batzuek egingo zuten haien orde- z, mobilizazioa irteera moderatu, integratzaile eta, azken buruan, des- mobilizatzaileetara bideratuz. Irakurketa horrek ondorio politiko eta organizatibo zuzenak zituen: ENAM ezin zen mugatu aurreko ziklo politikoko logikara, klandestinitate armatuan eta ekintza- errepresioan oinarritzen zena. Perturrek behin eta berriz esan zuen sindikatuek, herri-mugi- menduek, hauteskondeek eta tokiko erakundeek borroka-eremu emankor gisa funtzionatu behar zutela langileak antolatze- ko, haien kontzientzia handitze- ko eta prozesu iraultzaile baten aldeko hegemonia lehiatzeko.

Hala ere, era horretan jokatzek ez zuen esan nahi demokrazia burgesean sinistea, ezta demokrazia burgesean integratu behar zenik ere. Aitzitik, espazio berri horietan parte hartzea ikusten zuen betiere autonomia politikoa eta iraultzaren ortzi muga alde batera utzi gabe. Sistemaren pitzadurak herri-antolaketa indartzeko eta gatazka bizirik mantentzeko erabili behar ziren, eta Trantsizioa burgesiaren aldeko itxiera historiko berri gisa finka zedin saihestu. Frankismoaren amaieran dominazio sisteman egiten ari ziren aldaketan azterketa objektiboa egin zuen *Otsagabian* eta *Arnasan*; horixe izan zen Perturren meritua. Trantsizioa Erregimenaren jarraipena ez ezik, menderatze-modu sofistikatuagoetaranzko aldaketa kualitatiboa ere bazela irakurtzen jakin zuen. Aitzitik, KAS/ETA (m)-k, berehalako herri- anbizioei lotuago eta nolabaiteko subjektibismo sutsuarekin, ez zuen horrela ikusten: Estatuaren errepresioa eta forma autoritarioak faxismoarekin automatikoki berdintzeko joera zuen, eta zioen ezin zela demokrazia burgesaz hitz egin KAS Alternatiba onartzen ez zen bitartean. Hala ere, polimilie- k aurreikusi ez bazuten ere, KASen eta milien ikuspegi horrek masen atsekabe zabala- rekin konektatu zuen, eta horrek asko baldintzatu zuen ondorengo garapen politikoa. Polimi- lien zirriborroak malgutasun taktiko handiagoa zuen baina, aldi berean, aukera handiagoa zegoen instituzioek hura azkar asimilatze- ko –gero

Ekintza-errepresio dinamikak gailurra jo zuen, espero zen matxinada orokorra ez zen gertatu, Erregimena ez zen erori, eta, Franco hil geroztik, erreforma erabakigarri baterantz urratsak ematen ari zen

Euskal Iraultzarako Alderdiarekin (EIA) eta Euskadiko Ezkerrarekin (EE) aztertuko dugun bezala-. Nolanahi ere, gertakarien nondik norakoa ez zen izan ez batzuek ez besteez aurreikusitakoa zutena.

EUSKAL LANGILEEN ALDERDIA: BEHAR ESTRATEGIKOA

Koiunturari buruzko irakurketa horrekin, Perturrek Euskal Langileen Alderdia sortzea proposatzen zuen *Otsagabian* eta *Arnasan*: ez beste aukera batzuen arteko proposamen gisa, ez eta epe ertainerako hipotesi lauso soil gisa ere, baizik eta zeregin zehatz batzuk ezartzen zituen premiazko behar gisa. Premia hori ETak frankismoan izandako jardunaz eta 1975-1976ko bilakaera politiko erabakigarriaz Perturrek egiten zuen balantzetik ondorioztatzen zen zuzenean. Abiapuntua argia zen: ETak arrakastaz bete zuen bere lehen zeregin historikoa, erregeimen frankistaren kontraesanak areagotzea eta Euskal Herri Langilea politizatzen eta erradikalizatzen laguntzea. Hala ere, praktika horrek berak muga estruktural bat erakutsi zuen: ekintza-errepresio dinamikak gailurra jo zuen, espero zen matxinada orokorra ez zen gertatu, Erregimena ez zen erori, eta, Franco hil geroztik, erreforma erabakigarri baterantz urratsak ematen ari zen.

Testuinguru hartan, Perturrek *Otsagabia* ponentziaren bidez adierazi zuen ETA ez zegoela masa-mugimendua politikoki zuzentzeko moduan. Tinko adierazi zuen ENAMen prestigio politikoak haziz zihoala, masa-erakundeak zabalduz, baina jendea ez zela ETAn sartzen ari espero zitekeen bezain azkar. Ez gero eta erradikalizazio txikiagoa zuelako, baizik eta euskal langile klaseko sektore handi batzuek modu antolatua,

egonkor eta publikoan parte hartu nahi zutelako borroka politikoan, eta hori ezin zuen eskaini erakunde politiko-militar klandestinoak. Proposamen zehatza borroka politiko eta borroka armatua banatzea zen antolakuntzari zegokionez. Kontua ez zen biolentzia iraultzailea alde batera uztea –Perturrek argi zioen hori–, baizik eta onartzea irekitasun demokratiko-burgeseko egoera horretan prozesu iraultzailearen zuzendaritza politiko ezin zuela gauzatu erakunde armatu profesionalizatu batek. Beraz, Perturrek proposatutako alderdiak erakunde hertsiki politiko izan behar zuen, euskal prozesu iraultzailearen zuzendaritza politiko gauzatzera bideratua, borroka armatu klandestino egoera hartarako beharrezko dimentsio gisa mantentzen zen bitartean, baina alderditik kanpo eta baldintza berrietara egokituta. Banaketa horrek ez zuen prozesu osoaren izaera politiko-militarra ukatzen, baina ordura arte ETaren ezaugarri izan zen alderdiaren eta aparatu armatuaren arteko identifikazio organikoarekin apurtzen zuen. Hausnarketa hori, jatorrian, ETA (m)-k egin zuen, eta Perturrek eta polimiliek bere egin zuten azkenean.

Hala ere, Perturrek planteatzen zuen alderdia ez zen ohiko hauteskunde-alderdia, erreformistek eta historiografia ofizialak diotena diotela. Zehaztasun handiz definitu zuen: “Langile-klasearen alderdi iraultzailea. Euskal herri langilearen abangoardia. Independentista da; izan ere, Euskadi (zazpi herrialdeekin) errekonozitzen du klase borrokaren esparru nazional autonomo gisa. Teoria, estrategia eta ildo politiko propioak ditu, eta oraindik era kolektiboan lantzeko dago”. Gainera, elementu nagusi bat agertzen zen: Perturrek uste zuen ETak ez zituela guztiz ordezkatu langile klasearen interesak, eta bere baitan beti egon zirela burgesia txikiaren klase posizioak. Ondorioz, Perturrek proposatzen zuen alderdi berriak modu kontziente eta argian formulatu behar zituela langile klasearen interes objektibo horiek; izan ere, praktika armatuak ezin zuen hori berak bakarrik egin.

Antolakuntza mailan, alderdia ez zen aparatu zibil itxi edo klandestino izan behar. Garai hartan legez kanpokoa izanik ere, erabat politiko izango zenez, egitura malguagoak izango zituen, talde lokal, bilera eta asanbladetan oinarritutako funtzionamendua, eta euskal langileriaren eguneroko gatazketan esku hartzeko gaitasun handiagoa. Hau da, Kapitalaren aurka, masa borroka politikorako prestatutako alderdia, ez



bakarrik erregeimen frankistaren edo parlamentarismoaren aurkako hiri-gerrilla klandestino.

BORROKA ARMATUAREN EGINKIZUN BERRIA

Zeregin politiko berriei termino horietan ekin ahal izateko, ENAMek borroka armatuaren posizioa eta zeregina birpentsatu behar zituen. Perturren pentsamendua batez ere alde horretatik desitxuratu dute prentsak eta diskurtso ofizialak. Izan ere, donostiarrak ez zuen planteatzen borroka armatua bertan behera uztea –batez ere buruan izanik preso politikoen auzia, errepresio odoltsua eta inboluzio-arrisku erreala –; aitzitik, uste zuen armek funtzio erabat desberdina bete behar zutela fase berrian, bai funtzioan, bai posizioan, bai intentsitatean. Perturrek uste zuen borroka armatuak eginkizun instrumentala eta mendekoa izan behar zuela: beste bitarteko bat izango zen, estrategia politiko orokorraren mendekoa, eta onura sozial eta politiko zehatzak baldintzatua egongo zen beti. Hau da, ekintza armatu batek mugimendua isolatuko balu, espazio politikoak itxiko balitu edo indar politikoen metaketari kalte egingo balio, baztertu egin beharko litzateke, nahiz eta militarki eraginkorra izan eta etsaiari baja esanguratsuak eragin. Bete behar zuen eginkizun na-

Otsagabiak markatzen zuen ortzi mugak, beraz, talde militante armatu klandestino profesionalaren ekintzen protagonismoa pixkanaka murritztea zekarren. Hala ere, nabarmendu behar da dokumentu horretan ez zela inoiz borroka armatua ezabatzea aipatu

gusia, beraz, presioa egitea eta babestea izango zen, eta ez ETA (m)-k mahai gainean jartzen zuen higadurazko herri-gerra luzea.

ETA (pm)-k uste zuen erakunde armatuak ez zuela eraldaketarako motor nagusia izan behar. Beraz, disuasio- eta laguntza-funtzioak esleitzen zizkion, hala nola Estatuari presioa egitea askatasun politiko eta ekonomikoetan irekierak eta kontzesioak behartzeko, errepresioaren aurrean herri-mugimendua autodefentsaz hornitzea eta bermeak ematea irekiera-prozesu politikoa neutralizatu ez zezaten edo modu baztertzailan artikulatu ez zedin. Taktika armatuak, beraz, selektiboa eta neurritsua izan behar zuen: kalkulu politiko zehatzaren ondorio. Horretarako, intentsitate txikiko ekintza selektiboak egitea defendatzen zuen Perturrek, biktima zibilak eta eskalada automatikoak saihesteko. Betiere estrategia politikoarekin bat etorritz egin behar zen, eta ez aparatatu armatuaren eta komandoen kanpainen barne logika autonomoak gidatuta.

Perturrek uste zuen ekintza armatuak alderdiaren eta mugimenduaren hazkundeari lagundu behar ziola; ezin zuen, aitzitik, lehenak bigarrenaren eremua baldintzatu, eta are gutxiago protagonismo bila harekin lehiatu. Ildo horretan, ekintza bakoitzaren kostu politikoa zehatz-mehatz ebaluatu behar zen, herriaren iritzietan, aliantzetan eta, oro har, proiektuaren zilegitasunean zuen eraginagatik. Ekintza armatu baten kostu politikoak onura estrategikoa gainditzen bazuen, buruzagiak ondorioztatu behar zuen ez zuela zentzurik, etika iraultzailearen ikuspegitik bidezkoa izanik ere.

Otsagabiak markatzen zuen ortzi mugak, beraz, talde militante armatu klandestino profesionalaren ekintzen protagonismoa pixkanaka murriztea zekarren. Hala ere, nabarmendu behar da dokumentu horretan ez zela inoiz borroka armatua ezabatzea aipatu; horren orde, kuantitatiboki murriztea eta bestelako zentzu estrategiko batez hornitzea zen ideia, bere papera pixkanaka bigarren mailan gera zedin, alderdi-mugimenduak Estatuari beste termino batzuetan aurre egiteko indarra irabazi ahala.

ANTOLAMENDU-ALDAKETAK: EGITURAK PARTZIALKI DESMILITARIZATZEA

Perturrek barne militarismoari egindako kritika ez zen abstraktua edo moralista, borroka armatuaren zentraltasunak ETAr ezarritako muga zehatzen azterketa materiala baizik. Frankismoaren fase jakin batean eraginkorra izan zen ekintza-errepresio zurrunbiloa bere azkenera iritsi

zen: abangoardia iraultzailea desegin egin zen zuzendaritza politiko egonkorra premiazkoena zen momentuan, Pertur, Argala eta beste hainbat militante fisikoki ezabatu izanak erakusten duen bezalaxe. Perturrek deitoratu egiten zituen borroka armatuaren zentralitateak sortutako arazo estrukturalak: muturreko klandestinitatea, konpartimentalizazioa, zurruntasun hierarkikoa, erabakiak zirkulu murrizetan hartzea eta kideen arteko mesfidantzak. Errepresioari aurre egiteko dinamika horiek oztopo bihurtu ziren gero eta handiagoa zen masa-politika aurrera eramateko. Erakunde politiko-militarrak ezin zituen



eguneroko gatazkak bere gain hartu, ezta batzar irekiak egin edo ageriko egiturak mantendu ere, langile klaseak modu aktiboan eta irekian parte hartu nahi zuenean, hainbat hamarkadako izu faxistaren ondoren.

Hori ikusita, Perturrek ETAre birmoldaketa politikoa planteatu zuen: aparatu armatuak erabaki estrategikoetan zuen pisua murriztea eta antolamenduaren aldetik praktika militarra eta zuzendaritza politikoa bereiztea. Ez borroka armatua suntsitzeko, baizik eta borroka armatuak dena zehazteari utz ziezaion. Proposatutako alderdiak tokiko batzordeekin, batzarrekin eta barne-eztabaidarekin funtzionatzea zen asmoa. Aparatu klandestino militarren logikaren aurrean, zentralismo demokratikoaren eredu bat defendatzen zuen, oinarrietatik abiatuta kohezio ideologikoa eta iniziatiba zuena. Ohartarazten zuen erradikaltasuna ez zela ekintza armatua edo obediencia akritikoa, eta zuzendaritza eraginkorrak taldekako elaborazioa, egoeraren etengabeko azterketa eta masa-kontzientzia eskatzen zituela. Perturrek zаланtzan jartzen zuena ez zen aparatatu armatua bera, baizik eta haren papera eta politikoki zuzentzeko gaitasuna. Izan ere, ziur zegoen desoreka horri eusteak paradoxa bat sortuko zuela: erakunde armatuak sinboliko ki ospe handia izango zuen, baina, aldi berean, ez zen gai izango borrokan ziharduen langile-klasea modu eraginkorrean zuzentzeko.

EIA-EE ALDERDIAREN JARRAITUTASUNIK EZA

Otsagabia ponentzia, gerora, EIAre sorreran gorpuztu zen, baina hori Pertur desagertu ondoren izan zen. Beraz, ezin zaio esperientzia horren erantzukizun politikoa hari egotzi, bereziki kontuan hartuta EIAk *Otsagabia* ponentzian proposatutako eskema hautsi zuela. Francisco Letamendia “Ortzi” zendu berriak bere *El no vasco a la reforma* obran, zehazki Ezker Abertzalearen garapen historikoari buruzko atalean, zehazten zuenez, *Arnasa* dokumentuaren zatirik handiena Perturrek berak idatzi zuen, eta EIA sortzeko oinarri teorikoa izan zen, nahiz eta Gallartako azken manifestua Gregorio López Irasuegik eta Ortzik idatzi. Beraz, lehen EIAk –artean eurokomunismora biratu gabeak– Perturrek sartutako inspirazio leninista ortodoxo samarra zuen. Adierazpenak argi eta garbi esaten zuen EIA “alderdi langile abertzalea” zela, “Euskadiko langileen alderdi iraultzailea eraikitzeko bidean” zegoena. *Arnasan*, gainera, zehaztu egiten

zen ideologo polimiliak erabiltzen zuen herri-iraultzaren kontzeptua: euskal testuinguruan, nekazarien klase masiborik gabe, iraultza ezin zen izan aurretiko fase demokratiko-herrikoi bat, KASek eta miliek planteatzen zuten bezala, baizik eta zuzenean sozialista, langile klaseak zuzendua. Eta ohartarazten zen diktaduratik demokrazia formalera igarotzeak bide legalak aprobetxatzeko beharra zekarrela, baina haien mende erori gabe, joera erreformistak zainduz eta herri-botereko organoak indartuz.

Aurrerago, EIAk uko egin zion KASek 1977ko ekainean proposatutako hauteskunde boikotari, eta organo kolektiboa utzi zuen. Euskadiko Mugimendu Komunistarekin (EMK) batera Euskadiko Ezkerra koalizioaren pean aurkeztu zen, eta hainbat eserleku eskuratu zituen Kongresuan eta Senatuan. Hauteskunderen ondoren, II. Batzarra egin zuen 1977ko urriaren 8an eta 12an. Bertan, lehen Komite Zentrala, Komite Betearazlea eta idazkari nagusi bat aukeratu zituen, Mario Onaindia, Burgosko Prozesuko auzipetuen aurpegirik nabarmenetakoa. EIA-ren

1977an egindako II. Asanbladan hautatu zuten EIAre zuzendaritzak norabide aldaketa nabarmena eragin zuen alderdian: Perturren tesiak atzean gelditu ziren eta norabide aldaketak zenbait kidek alderdia uztea eragin zuen. Beraz, ezin zaie egotzi deriba horren erantzukizun politikoa ez Perturri, ez ETA (pm)-n militatu zuten komunistei, ezta lehen EIAri ere

zuzendaritza horrek norabide aldaketa nabarmena eragin zuen alderdian: Perturren tesiak atzean gelditu ziren eta norabide aldaketak zenbait kidek alderdia uztea eragin zuen. Beraz, ezin zaie egotzi deriba horren erantzukizun politikoa ez Perturri, ez ETA (pm)-n militatu zuten komunistei, ezta lehen EIAri ere. Besteak beste Gregorio López Irasuegik edo Iñaki Manerosek, Burgosko presoek nukleotik zetozenek, jarrera iraultzaileak defendatu zituzten, eta horregatik baztertu zituen Mario Onaindia buru zuen zuzendaritza berriak, Errekaren (*Otsagabiaren* beste ideologoa) babesa zuenak. Ortzi, parlamentuaren instrumentalizazio leninista entseatu zuena, laster atera zen alderditik, eta Herri Batasunaren lerroetara pasa zen zuzendaritzaren deriba oportunistak hautematean.

Beraz, Dani Askunzek *Klase-borroka ezker abertzalearen baitan 70eko hamarkadan* (16. *Artetika*) artikuluan gogorarazten duenez, Perturrek zirriborratutako tesi komunistak EIAren zuzendaritzako gutxiengo batek egin zituen bere, eta ez zuen korrelaziorik ETAREN erresistentzia antifrankistaren ospeak erakarritako oinarrietan. Hala, Askunzek zioen bezala, ez zen gehiegizko komunismoa izan EIA desbideratu zuena, baizik eta haren aplikazio eza. Azken batean, desbideratze erreformista goiztiarraren ondorioz, ezin izan zen ikusi zer gertatuko zen EIA iraultzailea izan balitz.

Gaur-gaurkoz esan dezakeguna da Perturrek eta ETA (pm)-ko komunistek alderdi iraultzailea masa-borrokaaren antolatzaile eta herri-boterearen dinamizatzailerik gisa ulertzen zuten bitartean, EIAk parlamentarismoan kokatu zuela berehala estrategia, marxismo-leninismotik eurokomunismora eta eurokomunismotik sozialdemokrazia hutsera igarota. Gainera, alderdiak erakunde armatuari bizkar emanez bukarazi zuen tentsio politiko-militarra, ez borroka armatua norabide politikoaren menpeko eginez; izan ere, Espainiako Estatuarekin itun bat sinatu zuen. Ildo horretan, EIAren bilakaera irtenbide partzial, aldeabakarra eta erreformista gisa uler daiteke, Perturrek termino iraultzaileetan adierazitako arazoaren aurrean; desberdintasun estrategiko esanguratsu hori, alta, sistematikoki utzi da bazter.


KAS/ETA (M)-REKIKO DESADOSTASUNAK

Perturren proposamena *Otsagabiako* eskema estrategikoaren eta KAS/ETA (m)-ren geroko planteamenduaren arteko kontrastean nabarmentzen da, eta, aldi berean, ezin hobeto ikusi daiteke zer-

ETA (m), José Miguel Beñaran “Argala” buru zuela, Perturren alderdi iraultzailearen aldeko tesietara hurbildu zen

gatik izan zen ezinezkoa ENAMen bi adarrak bateratzea. Haien arteko desberdintasuna ez zetzan ñabarduretan; aitzitik, bi logika politikoak bateraezinak ziren, bai boterearen kontzepzioan, bai politikaren, jarduera armatuaren eta erakundearen arteko artikulazioan.

Hala ere, komeni da bi eredu horiek argazki finko gisa ez aurkeztea: bai ETA (m)-k eta bai ETA (pm)-k barne bilakaera bat jasan zuten, kontraesanek eta birdefinizioz beteak, eta bi estrategien arteko eztabaida prozesu luzea izan zen. Milien eta polimilien arteko zatiketa eragin zuten hasierako desadostasunak gorabehera, ETA politiko-militarra bere antolaketa-eredua modulatzeko joan zen: borroka armatuaren eta masen borrokaren arteko bereizketari buruzko milien kontzepzioetara partzialki hurbildu, eta hasiera batean miliek proposatutako bikoizketaren kontzeptua onartu zuten. Miliek, beren aldetik, eskal langileriaren alderdi iraultzaile bat sortzeko apustua onartu zuten *Otsagabia* eta *Arnasa* dokumentuetan jasotako terminoetan, aldi baterako behintzat: ETA (m), José Miguel Beñaran “Argala” buru zuela, Perturren alderdi iraultzailearen aldeko tesietara hurbildu zen, eta bilakaera hori *Zutik* aldizkariaren 65. eta 67. zenbakien artean jaso zen. Hala, 1976ko ETA (pm)-ren VII. Batzarrean, bi adarren arteko hurbiltasunik handiena lortu zen, Txomin Iturbe eta Argala bertan zirela, eta ekarpenak egin zituzten azken testuari. Batzar hartako ondorioak txalotu egin zituen adar militarren *Zutik* aldizkariaren 67. zenbakiak, eta, une baikor labur batez, posible ikusi zen bi ETAK bateratzea, langileen alderdi iraultzaile baten alde egiteko. Horren ondorioz, miliek zein polimiliek KAS osatu zuten hasiera batean, harik eta ETA (pm)-ko zuzendaritzak mahaia uztea erabaki zuen arte, EIAk Estatuarekin negoziatu eta hauteskundeetan parte hartu ondoren. Momentu horretan, Ezker Abertzalearen batasunerako aukerak lurperatu, eta alderdi iraultzailearen hipotesia zapuztu egin zen.



Beraz, bi adarren arteko aurkakotasuna ez zen abiapuntu aldaezina izan, prozesu historiko azkar, konplexu eta aldakor baten emaitza baizik. Perturren eredua milien baina garbiagoa zen hasieratik, baina praktikan ez zuen garapen politikorik izan. Sakoneko desberdintasunak gaindiezinak izan ziren azkenean: batetik, miliek borroka armatuari izaera ofentsiboa ematen zioten, abangoardiatzat hartzen zuten eta instituzioetan parte hartzeko baldintza eta helburu oso mugatuak zituzten; bestetik, polimiliek armak disuasio tresnatzat hartzen zituzten eta legezko espazio guztiak aprobetxatzearen aldeko apustua egin zuten. Ideien arteko norgehiagoka hori *Zutik* aldizkariaren 68. eta 69. zenbakietan islatu zuten.

Lehen desadostasunak politikaren eta aparatatu armatuaren arteko harremanari eragiten zion. Perturren planteamenduan, politika orokorrak agindu behar zuen. Ikusi dugunez, borroka armatua ez zen desagertzen polimilien lehen planteamenduan, baina estrategia politiko zabalgoren baten mende geratzen zen, erabilgarritasun zehatzaren eta kostu politikoaren arabera ebatzua, itzulgarria eta murriztekeena. Hipo-

tesi gisa formulatzen zuen alderdi iraultzaileak benetako autonomia izan behar zuen aparatatu armatuaren aurrean, norabide politiko eraginkorra izateko egoera aldakor batean.

KAS/ETA (m)-n, aldiz, ENAM osoa ETAREN inguruan mugitzen zen, 1974ko ETA militarren *Agiri* fundazionalean islatu zenez. Aurrerago, ikuspegi hori bera berretsi egin zuten 1977an, mili-berezien fusio-dokumentuan, non planteatzen baitzen borroka armatua “burgesiak benetan asimilatu ezin duen elementu bakarra” zela. Beraz, aparatatu militarra ez zen beste tresna bat, baizik eta proiektua egituratzen zuen tresna. Hori dela eta, historikoki Ezker Abertzaleak ETARI *erakundea* deitu izan dio, nahiz eta ENAMek hainbat erakunde izan. Arlo politikoak arlo militarra laguntzen, legitimatzen eta handitzen zuen, baina ez zuen zuzentzen. KASEk bloke estrategiko gisa funtzionatzen zuen, eta haren kohesioa, azken batean, *erakundearen* zentraltasunaren eta hark ezartzen zuen diziplina sendoaren mende zegoen. Hori ez zen antolakuntza-xehetasun hutsa; izan ere, uste zuten desbideratze likidazionistak saihesteko bermea zela aparatatu armatuak gainerako mugimenduetan zuen kontrola.

Desberdintasun hori bereziki argi adierazten zen borroka armatuaren ikuskeran. Perturrek esplizituki zioen herri-gerra luzea edo eskalada automatikoa ez zela prozesu iraultzailearen eragile. Indarkeria iraultzaile profesionalizatuak aipatutako funtzio mugatuak bete behar zituen, eta progresiboki desaktibatu, indar-korrelazioak eta masen antolaketa politiko iraultzaileak baldintzatuta.

KAS/ETA (m)-ren ustez, ordea, bere programaren oinarria interklasista zenez eta bere helburu estrategikoa haustura demokratikoa zenez, borroka armatua zen gatazkaren motorra. Borroka armatuak soilik eragozten zuen sisteman integratzea edota “traiziorik” gertatzea. Beraz, KAS/ETA (m)-k fronte guztietan “indarrak metatzeaz” hitz egin arren, estrategia armatuaren zerbitzura zegoen, eta zentraltasun horri uko egitea askapen nazionaleko mugimendu izateari uko egitea zen, eztabaidarik gabe. *Zutik* aldizkariaren 1978ko 69. zenbakiak formalizatu egin zuen eskema hori, eta fronte iraultzailea zuzendaritza militarren pean kokatu zuen. Ildo hori mili-bereziek fusio dokumentuan eta ondoren KAS Bloke Buruzagi gisa formalizatzean ere agertzen da. Ildo horren testia HASIren eranskinetan ere jasotzen da, 80ko hamarkadan.

Alderdia eta mugimendua ere bateraezinak ziren. Perturrek alderdi-mugimendu gisa ulertzen zuen alderdia: zentralismo demokratikoan oinarritua, nolabaiteko aniztasun iraultzailea zuena, sozialki iragazkorra eta ez monolitikoa. Alderdia arduratu behar zen herri mugimendua antolatzeaz, artikulatzeaz eta bultzatzeaz, hura ordezkatu gabe eta hura blokean diziplinatu gabe. Perturren ustez, barne aniztasuna ez zen desagerarazi beharreko arazo bat –betiere, joera antolatu forma hartzen ez bazuten–, baizik eta egoea konplexuetara egokitzeko gai zen politika bizi baterako baldintza. KAS/ETA (m)-rentzat, aldiz, ENAM mugimendu nazional-herrikoia zen, eta hori diziplina handiko bloke batean integratzen ziren fronte espezializatuetan artikulatu behar zen. Eskema horretan, barne aniztasunak zatiketarako edo desbideratze estrategikorako arriskua ekar zezakeen. Perturrentzat, berriz, aberastasun politikoa eta zuzentzeko gaitasuna zekarren aniztasun horrek.

Trantsizioaren gainean zuten irakurketak behin betikoa bihurtu zuen bi ikuspegien arteko talka. Perturrentzat, gogora dezagun, Trantsizioa prozesu irekia eta guztiz kontraesankorra zen: bertan, etengabeko tirabiran ziharduten borrokaren bidez lortutako aurrerapen partzialek, itxiera

Perturrek eta polimiliek oso arrisku zehatzaz ohartarazten zuten: ETAk intentsitate handiko estrategiari, armen zentraltasunari eta taktika instituzionalaren erabateko gaitzespenari eusten bazion, sozialki isolatuta eta gero eta itxiagoa zen dinamika militar errepresibo batean harrapatuta amaituko zuen

autoritarioaren saiakerek eta menderatze burgesa termino berrietan finkatzeko arriskuak. Testuiguru horretan, Perturrek eta polimiliek eztabaidarako abagunea ikusi zuten, bai erakundeen barruan, bai kanpoan, eta gatazka birkonfiguratzeako aukera eta beharra ere bai, eskalada betikotu gabe. KAS/ETA (m)-rentzat, aldiz, Trantsizioa erreforma kontrolatua eta itxia zen funtsean, oposizioa eta indar iraultzaileak integratzeko eta neutralizatzeko diseinatua. Instituzioetan sartzea, bere ikuspuntutik, haiek legitimatzea eta Estatua-ren tranpan erortzea zen. Hortaz, puntu horretan gertatu zen aurrez aurreko talka: Perturrek uste zuen aldi berean hainbat zelaitan joka zitekeela gatazkari uko egin gabe; KASek uste zuen horixe zela etsaiaren estrategia. Miliek parte-hartze instituzionalarekiko zuten mesfidantza hori *Zutik* aldizkariaren 68. (1977) eta 69. (1978) zenbakietan islatu zen, non argi eta garbi kritikatzten zuten baldintzarik gabe hauteskundeetako parte hartzea.

Perturrek eta polimiliek, berriz, oso arrisku zehatzaz ohartarazten zuten: ETAk intentsitate handiko strategiari, armen zentraltasunari eta taktika instituzionalaren erabateko gaitzespenari eusten bazion, sozialki isolatuta eta gero eta itxiagoa zen dinamika militar errepresibo batean harrapatuta amaituko zuen. Perturrek ETArek etorkizunerako egindako proposamena ez zen ezkutuko porrota, baizik eta borroka armaturako irtenbide estrategikoa, ENAMen marjinalizazioa saihesteko eta eskalada politiko iraultzaile zabala goa bultzatzeko, armei zeregin osagarria emanda. Proposamen hori zirriborratu zuen bai *Arnasan*, bai *Otsagabia* ponentzian.

ARRAZOI BIKOITZ PARTZIALA ETA ONDORENGO TRAGEDIA POLITIKOA


Perturren eskemaren eta KAS/ETA (m)-ren estrategiaren arteko bateraezintasuna ez zen istripua izan, ezta akats pertsonal edo koiunturalen ondorioa ere. Bi arrazoi partzialen adierazpena izan zen, eta, bi arrazoi horiek integratu ezin zirenez, elkar deuseztatu zuten. Perspektiba historikoak ematen duen pribilegioarekin ikus dezakegun tragedia politikoa, hain zuzen ere, partzialki asmatu zuten bi korronte horiek esparru estrategiko bateraezinetan garatu zirelako gertatu zen.

Alde batetik, neurri batean egokia izan zen KAS/ETA (m)-k egin zuen ohartarazpena, instituzioetan parte hartzeak izan zitzakeen integrazio-arriskuei buruzkoa. *Zutik* aldizkariaren 69. zenbakian adierazi zenez, nahiz eta hainbat indarrek haustura iraultzailea lortzeko ahaleginak egin, prozesua frankismoaren erreforma kontrolatu gisa bideratzeko arriskua zegoen, botearen funtsezko zutabeen jarraipena bermatzeko diseinatua: sistema kapitalistaren eta Estatuaren lurralde batasunaren jarraipena, alegia. Klase egitura, monarkia, aparatu judiziala, indar errepresiboak eta “Espainiaren batasuna” bere horretan mantendu ziren, oposizioa pixkanaka integratua edo errepresioaren bidez neutralizatua zen bitartean. Ikuspegi horretatik, hauteskundeak, autonomiak eta alderdien legeztatzea ez ziren konkista neutralak izan. Estatuak bere eremuan politika egiteko aukera pozoitua eskaintzen zien bere arauak onartzen zituztenei, baina parte hartze horrek xurgapena zekarren ia ezinbestean. Gatazkari eusteko indar propiorik gabe sartzen zena, integratuta eta neutralizatuta geratzen zen. Ondorengo historiak kasu askotan eman zion arrazoia diagnostiko horri; izan ere, ezkerreko sektore zabalak ordena politiko berriaren kudeatzaile bihurtu dira edo garrantzi oro galduta desegin dira.

Puntu zehatz horretan, Pertur baikorrago agertu zen hauteskundeetako parte hartzeari dagokionez esperientzia historikoak gerora frogatu zuena baino. Hala ere, *Arnasak* berak jada ohartarazten zuen integrazio instituzionalaren arriskuez, instituzioetako parte hartzeak atzean ez bazuen masa-antolaketa sendorik. Horregatik, Perturren baikortasuna ez zen inozoa: ez zuen inoiz prozesuan konfiantza osoa izan, ezta haren burges izaera ukatu ere, eta perspektiba ere ez zen zentzugabea, masen bultzadaren une historikoari eta Euskal Herrian garai hartan bizi zen krisi ekonomikoari erreparatuz gero. Gainera,

Erregimenaren mutazioaren azterketa egokia goan oinarritzen zen. Haren akats erlatiboa izan zen, beharbada, gutxietsi egin zuela esparru demokratiko-burges berriak xurgatzeko zuen gaitasuna. KASek, berriz, erlatiboki bada ere, asmatu zuen ulertu eta nabarmendu zuenean erakundee-tan parte hartzea, oso aldeko indar korrelaziorik gabe, tranpa bat izan zitekeela, nahiz eta ikuspegi horrek indar metaketaren bestelako kontzepzio bati erantzun. Izan ere, KASen arazoa beste bat izan zen: Trantsizioari buruzko bere irakurketak kontzesio taktikoak eta kapitulazio estrategikoa bereiztea eragotzi zien, eta borroka armatuari zentralitatea kentzen zion parte hartzeko modu oro traiziotzat hartzera eraman zituen, eta horrek, luzarora, isolamendua areagotu zuen.





Perturrentzat, *Arnasan* garatu zuenez, frankismotik zaurituta atera zen erregimena faxismotik jasotako berezitasunak zituen demokrazia burgesa izango zen. Ondorioz, zeregin iraultzailea ezin zen izan “iraultza demokratikoa” –askatasun formalak osatzeko edo haustura demokratiko-nazionala behartzeko bide gisa ulertua–, baizik eta iraultza sozialista bat, estatu burgesaren esparrua gaindituko zuena. KAS/ETA (m)-rentzat, aldiz, Espainiako Estatua ez zen ohiko demokrazia burgesa, ez baitzuen KAS Alternatiba onartzen. Estatua negoziatzera behartzearen bidez haustura demokratikoa lortu behar zela uste zuten, borroka armatua ardatz eta masen laguntza osagarri gisa hartuta. Independentzia eta autodeterminazioa iraultza sozialistaren aurreko prozesutzat hartzen ziren, eta ez zegoen horretarako ibilbide orri estrategikorik zehaztuta. Horrek guztiak etsaiaren, aliatu potentzialaren, instituzioen eginkizunaren eta erakundearen horizontearen kontrako ikusmoldeak zekartzan.

Zentzu horretan, ideologo polimiliak aparteko argibidetasuna erakutsi zuen KAS/ETA (m)-ren eskemaren barne-mugen azterketan. Askok baino lehenago ulertu zuen borroka armatuaren zentraltasun iraunkorra ez zela programaren erradikaltasunaren berme bat, eta higadura progresiboaren faktore bat izango zela. Perturrek hau ohartarazi zuen: ordutik aurrera, espezialistek gauzatutako indarkeria politikoak, proiektuaren ardatz egituratzaile bihurtuta, gizarte isolamendua ekarriko zuen, estatuaren errepresioa indartuko zuen eta masetatik gero eta deskonektatuago zegoen dinamika propioa sortuko zuen. Diagnostiko hori ez zen hipotesi berria, ezta abstraktua ere: ideia hori barne kritika gisa irakur daiteke Burgosko presoan dokumentuan (1971), zeinetan norabide proletario independentea hartzeko eskatzen zen. Perturrek adieraziak zituen martxan zegoen joera horren ondorio zehatzak: azkenean, aparatu armatuak zehaztuko zituen denborak eta erritmoak, politika orokorra erabaki instantzia gisa ordezkatzuz eta edozein zuzenketa estrategiko blokeatuz. Ekintzaren eta errepresioaren logika helburu bihurtu zen berez, eta prozesu iraultzailean aurrerapen politiko ukigarrietan metatutako indar soziala aprobetxatzea zailtzen zuen. Urteen poderioz, dinamika hori berretsi egin zen: gatazkaren zurrumbiloa, babesen galera progresiboa, gizartearen babesa lorpen estrategiko bihurtzeko zailtasun gero eta handiagoa eta bai ETA, bai ENAM, oro har, zokoratzea. Alde horretatik, Perturren analisisa ia profetikoa da.

Tragedia politikoa honetan datza: biek zuten arrazoa, neurri batean, baina bakoitzak bestea baztertzen zuen esparru batetik begiratzen zuen. KASen diagnostikoa onartzen bazen, onartzen zen Trantsizioan sartzea integrazioaren eta porrotaren baliokidea zela. Perturren diagnostikoa onartuz gero, borroka armatuaren zentralitateari mugarik gabe eusteak isolamendura eta higadurara eramaten zuen. Bi alderdien arteko sintesia gauzatzeko, beharrezkoak ziren eman ez ziren zenbait baldintza: aparatu armatuaren gaineko benetako diziiplina politikoa, mugimendu sendoagoa eta elkartuagoa, eta estatuko eta nazioarteko indarren arteko korrelazio ez hain itxia.

Tentsio horri eusteko ezintasunaren aurrean, adar bakoitzak bere bidea hartu zuen: EIA-EEK ETA (pm) ezabatzea eta esparru instituzionala onartzea erabaki zuen berehala, gatazka eta haustura iraultzailearen horizontea kitatzeko prezioan. KASEk eta ETA (m)-k gatazka armatuari eustea eta instituzioak baztertzea erabaki zuten, eta hainbat hamarkadatan bere nortasuna eta barne koherentzia zaindu zituen. Hala ere, kostu humanoa, politikoa eta soziala ordaindu zituen, azkenean bere bidaideen antzeko patua bere gain hartu behar izateraino. Perturrek kontraesan hori bizitzea proposatu zuen, ez berehala konpontzea, baina historiak erakutsi zuen zenbateraino zen zaila bai integrazio pasiboari bai militarizazio marjinalizatzaileari uko egingo zion estrategia bati eustea, azkenean hautsi gabe. Eztabaida hau ez dagokio soilik iraganari, Perturri, ENAMen adar ezberdinei eta desegindako nazioarteko mugimendu komunistari, orainaldiko eta etorkizuneko komunistak guztiei ere badagokigu.

Perturrek beste askok baino lehenago ulertu zuen borroka armatuaren zentraltasun iraunkorra ez zela programaren erradikaltasunaren berme bat, eta higadura progresiboaren faktore bat izango zela

ONDORIOAK ETA IRAKASPENAK

Otsagabia ponentziatik eta Pertur desagertu zenetik igaro den mende erdia Europa mende-baldeko ezker iraultzailearen esperientzia politiko trinko, kontraesankor eta bizienetako bat izan da. Hala moduz itxitako ziklo politikoa da, asmatze, akats, porrot, sakrifizio eta ikaskuntzen metaketa historikoarekin, eta proiektu komunista europar serio bakar batek ere ezin du alde batera utzi. Ez da erabaki taktikoen sekuentzia bat, prozesu historiko bat baizik, non, muturreraino, sakoneko arazo beraren erantzun desberdinak probatu diren: nola mantendu zabalik hipotesi iraultzaile bat baldintza aldakor eta zailetan. Aldi honetako ikasgai nagusia, beraz, ez da errezeta itxi bat, ohar ireki bat baizik: ez dago lasterbide estrategikorik. Ez etengabeko militarizazioak ez integrazio instituzionalak ez dute bermatzen haustura sozialista, ezta askapen nazionala ere. Euskal historia hurbilak irakaspen hauek uzten ditu ohiz kanpoko argitasunez.

1. Estatua ulertzea nahitaezko baldintza da, baina ez da nahikoa

Estatu kapitalista ez da neutrala, ezta bere forma demokratikoan ere: integratu egiten du desaktibatze, egonkortze eta erreprimitzeko, beharrezkotzat jotzen duenean. Trantsizioak, autonomismoak eta ENAMen integrazio historikoki mailakatuak hori berresten dute. “Aurrerapauso” instituzional bakar bat ere ez da atzeraezina, legeak ez dira bermeak, hauteskunde mailako metaketa bakar batek ere ez du indar korrelazio erreal bat ordeztzen, eta inozotasun instituzionalak sozialdemokratizaziora garamatza.

2. Mugimendua ulertzea Estatua ulertzea bezain garrantzitsua da

Estatua ondo ulertzea ez da nahikoa hura garaitzeko. KASek integrazio mekanismoak sumatu zituen eta horien beldur izan zen, baina gutxietsi egin zituen matxinada-testuinguruetatik kanpo eutsitako konfrontazio armatuaren ondorioak. Etsaiaren ezagutzak, berez, ez du garaipena bermatzen, baldin eta horrekin batera ez bada egiten norberaren indarren eta eskala zabaleko erreprodukzio politikorako ahalmenaren irakurketa zuzena. Espezialisten borroka armatuaren zentraltasun luzeak, hasierako funtzio historikoa agortutakoan, elementu hauek sortu zituen: isolamendua, autoerreferentzialtasuna, politika

aparatu militarren logikarekin ordezte, eta metatutako babes soziala aurrerapen estrategiko bihurtzeko ezintasuna. Programa politikoaren erradikaltasuna ezin da neurtu soilik estatuarekiko konfrontazio armatuaren mailarekin, baizik eta baita masak antolatze gaitasunarekin ere gizarte berri bat eraikitze botere politikoa lortzeko.

3. Ez dago sintesi automatikorik gatazkaren eta bide instituzionalaren artean

Behin eta berriz errepikatu da gatazka eta apustu instituzionalaren arteko trantsizio bidea harmoniatsua dela, eta hori akats izugarria da. Izan ere, azken mendeko euskal historiak kontrakoa erakusten du. Instituzionalizazioa ez da eremu neutroa edo itzulgarria, ezta hasieran jarrrera erradikaletatik heltzen zaionean ere. Apustu instituzionalak, “taktikoak” zein “iragankorrak”, berezko logikak sortzera jo du, proiektu iraultzailea xurgatzeko benetako arriskua dutenak.

4. Alderdia, mugimendua eta hegemonia: konpondu beharreko gaia

Langile klasean nagusitasun sozial iraunkorra duen alderdi komunistarik ez egotea aztertu dugun garai osoan dago presente. ETak ezin zuen; EIA-EEK uko egin zion; Ezker Abertzaleak ere bai. Alderdi-mugimendurik gabe ez dago hipotesi iraultzaile bideragarririk, eta alderdi hori ezin da izan ez aparatu militarizatu bat, ez alderdi elektoralista bat. Uste hori oso garrantzitsua izan zen, eta Perturrek modu sistematizatuan aurkeztu zuen.

5. Auzi nazionalak ez du klase-borroka ordezkutzen, baina egon badago

Euskal Herriko auzi nazionala historikoki Estatuen eta Kapitalaren aurkako borrokaren katalizatzaile indartsua izan da, baina estrategia interklasista nazionalista batek, azkenean, zapalkuntza nazionalarekiko ebazpen sozialista blokeatu du. ENAMen kontzeptu estrategikoak, “Euskal Herriko klase borrokak nazio askapenerako borrokaren forma hartzen duela”, ez du ez independentzia ez sozialismoa ekarri, eta sarritan klaseartekotasuna justifikatzeko balio izan du. Beraz, ez dago auzi nazionalari jaramonik egiten ez dion proiektu iraultzaile bideragarririk, baina ez dago askapen nazionalik ere, estrategia iraultzaile independente eta internazionalista batetik kanpo.

6. Garai historikoak axola du: agortutako formulak ez errepikatzea

ENAMen gorakada ahalbidetu zuen testuinguru historiko nazionala eta nazioartekoa jada ez da existitzen, eta, beraz, forma horiek existitzeko baldintzarik gabe errepikatzea ez da fidelotasuna, akats estrategikoa baizik. Boluntarismoaren eta derrotismoaren artean espazio estu baina erreal bat dago: hipotesi iraultzailea pazientziaz berre-raikitzea. Izan ere, Euskal Herriko klase borrokaren azken mende Erdiko ondare nagusia ez da eredu itxi bat, ohartarazpen estrategiko bat baizik: errealitate historikoaren ikuspegi zorrotz bat landu behar da, bai etsaiaren boterea ezau-garritzeko orduan, bai aurre egingo dion langile klasearen alderdia bera karakterizatzeko orduan. Komunisten zeregina bi dimentsio horiek estrategia koherente batean bateratzen saiatzean datza, bidezidorrik eta ilusiorik gabe. Lan hori egiteke dago oraindik.

"Herri baten bizitzaren lekuko da Herriaren Arnasa: zapalkuntza eta heriotzaren lozorrotik esnatzen ari den, bere askatasuna lortzeko burrukan ari den herri baten bizitzaren lekuko, bizitza eutsezina eta alde batera utzi ezin dena, iraultza den bizitza, hazten eta hedatzen doana, eta bere lurra eta etorkizuna bere esku hartu eta gure herriak klaserik gabeko euskal gizarte aske bat eraikiko duela aldarrikatzern duena, eta beren odola ixuri eta bizitza ahitzearaino gure lagunak bultzatu dituzten asmoek burutuko dituztela esaten duen bizitza. Bizitzaren lekuko eta, aldi berean, iraultza horretarako lagungarri."

— Arnasa: *Reagrupamenduko taldeetarako aztergaiak* (1976) ●



PERTUR: IRAULTZAILE BATEN DESAGERPENA

Testua — **Vaptsarov**

*El 26 de Agosto de 1976...
el 26 agosto de 1976
mi hijo Marcelo Ariel y
su mujer Claudia, encinta,
fueron secuestrados en
buenos aires por un
comando militar. El hijo
de ambos nació y murió en
el campo de concentración.
como en decenas de miles
de otros casos, la dictadura
militar nunca reconoció
oficialmente a estos
“desaparecidos”, habló de
“los ausentes para siempre”.
hasta que no vea sus cadáveres
o a sus asesinos, nunca los daré por muertos.*

— Juan Gelman



Espainiako Estatuko trantsizioak oraindik izenik ez zuen sasoian, 1976ko uztailaren amaieran, Eduardo Moreno Bergaretxe –“Pertur” goitizenez– ETA politiko-militarreko militante eta ideologo gaztea, arrastorik utzi gabe desagertu zen Biriatun (Lapurdi). Orduz geroztik, ez da haren berririk izan: ez gorpurik, ez gertatutakoa argitzen duen froga erabakigarrikerik ere.

Dagoeneko bost hamarkada igaro dira ordutik, eta galdera nagusiak bere horretan dirau: zer gertatu zitzaion Perturri? Urteotan hainbat hipotesi eta ikerketa metatu dira –batzuk ofizialak, beste batzuk alternatiboak–, baina inork ez du lortu gertatutakoa modu frogagarrian ixtea. Hala ere, bertsio guztiek ez dute pisu bera izan: susmo hutsetan oinarritutako kontakizun batzuk botere instituzional eta mediatikoz indartu dira, eta beste batzuk, berriz, bazterretan geratu dira, zantzu solidoagoak eta ikerketa-ildo posibleak mahaigaineratu dituzten arren.

Erreportaje honek, desagerpenaren 50. urteurrena aitzakia hartuta, egiaztatutako gertakarietatik abiatuta berreraiki nahi du kasuaren ibilbidea. Abiapuntua da aztertzea zer dakigun ziurtasunez, eta zer ez; ondoren, urteetan erakitako bertsio eta ikerketa desberdinak zuhurtziaz kontrastatzeko.

TESTUINGURUA ETA PERTURREN FIGURA

1976ko uda nahasia izan zen Euskal Herrian: erregimen frankistaren erreformak masa borroka eta aukera politiko ugari piztu zituen. Ondorioz, ETAre barruan ere eztabaida estrategiko sakonak izan ziren, eta Pertur, justuki, horien erdian kokatzen zen, ale honetako *50 urte Otsagabia ponentziatik: Perturren eta KASen arteko elkarriketa bat* erreportajearen xehatzen denez.

Pertur militante komunista eta abertzalea izan zen, 1950eko urriaren 13an Donostian jaioa, ETAre barruan 1970eko hamarkadaren erdialdean piztutako eztabaida estrategikoetan buru-belarri aritua eta erakundearen barruan eragin handienetarikoa zuen kidea. 25 urte besterik ez zituela, ETAre VII. Asanbladarako *Otsagabia* ponentzia eta Euskal Iraultzarako Alderdiaren (EIA) *Arnasa, Reagrupamenduko taldeetarako aztergaiak* dokumentu teorikoan egin zituen ekarpenek erakusten dute zenbaterainokoa zen haren pisu teoriko eta politikoa. Bere ibilbidean, etengabeko kezka izan zuen sozialismoa, nazio askapena eta borroka moldeak nola uztartu testuinguru historiko aldakorrean. Trantsizioaren

hasierako une nahasi haietan, bereziki, erakundearen norabidea birpentsatzeko ahalegin handia egin zuen.

Askok historia berridatzi eta Pertur “posibilistatza” aurkeztu nahi izan badute ere, bere planteamendua ez zen jardun armatua bertan behera uztea, baizik eta hura egokitzea. Perturrek proposatzen zuen borroka armatuak momentu historiko hartan funtzio instrumental eta subordinatua izan behar zuela, estrategia politiko zabalago baten barruan. Aldi berean, beharrezkotzat jotzen zuen langile klasearen alderdi iraultzaile bat eratzea, prozesu iraultzailearen zuzendaritza politikoa hartzeko gai izango zena, borroka molde desberdinak –armatua, politikoa eta soziala– modu artikulatuan uztartuz. Trantsizioa bera ere prozesu irekitzat jotzen zuen, non borroka ez zen desagertzen, baizik eta beste esparru batzuetara hedatzen zen; horregatik, eremu sozial eta instituzional berriak ere borrokarako eremu gisa ulertzen zituen. Baina horrek ez du esan nahi Perturrek armak uztea eta demokrazia burges espainiarra baikortasunez bersarkatzea proposatzen zuenik; ezta gutxiagorik ere. Hori desagerpenaren inguruko kontakizun edo susmo jakin bat *a posteriori* zabaltzeko desitxuraketa funtzionala izan da, besterik ez.

Susmo hutsetan oinarritutako kontakizun batzuk botere instituzional eta mediatikoz indartu dira, eta beste batzuk, berriz, bazterretan geratu dira, zantzu solidoagoak eta ikerketa-ildo posibleak mahaigaineratu dituzten arren

DESAGERPENEA ETA EGIAZTATUTAKO GERTAKARIAK

Aurreko gaua eta huts egin zuen hitzordu bat

1976ko uztailaren 22tik 23rako gauean Pertur errefuxiatu politiko gisa bizi zen apartamentuetako batean egon zen Donibane Lohizunen (Lapurdi). Egun batzuk lehenago, Hendaiako Mugalde liburu dendan mezu bat jaso zuen: uztailaren 23an, 10:00etan, Donibane Lohizuneko Consolation kafetegian agertu behar zuen, “duela hilabete ezagutu zenuen eta berriro ikusi nahi zaituen pertsona batekin” elkartzeko. Kafetegiko langileen testigantzaaren arabera, Pertur ez zen inoiz bertara iritsi. Inork ez du argitu zergatik huts egin zuen hitzordu hark.

Pakitorekin eta Apalarekin topaketa

Goizeko 09:40 aldera, Donibane Lohizuneko bidegurutze batean, Pertur Francisco Mujika Garmendia “Pakito” eta Miguel Angel Apalategi Ayerbe “Apala”-ekin elkartu zen, ETA (pm)-ko Komando Bereziatiko kideekin. Topaketa haren

Askok historia berridatzi eta Pertur “posibilistatza” aurkeztu nahi izan badute ere, bere planteamendua ez zen jardun armatua bertan behera uztea, baizik eta hura egokitzea. Perturrek proposatzen zuen borroka armatuak momentu historiko hartan funtzio instrumental eta subordinatua izan behar zuela, estrategia politiko zabalago baten barruan



Pertur: iraultzaile baten desagerpena — Vaptsarov

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

lekuko izan zen Eleuterio Jauregi Beloki “Troski”. Troskiren arabera, Pertur bera izan zen Pakitori eta Apalari galdetu ziena ea Hendaia aldera zihoazen, eta ea Behobiaraino eramango ote zuten. Haiek onartu egin zuten, eta hirurak Renault 5 urdin batean abiatu ziren. Lekukoak adierazi zuen ez zuela ezer arrarorik sumatu: Perturrek normaltasunez jokatu zuen eta, alde egin aurretik, txantxetan aritu zen.

Bi ordu iraun zuen ibilbidea

Donibane Lohizune eta Behobia arteko distantzia 12 kilometro ingurukoa da, eta normalean 15-20 minutuan egiten da. Hala ere, Pakitok 1976ko uztailaren 24an Frantziako Poliziaren aurrean egindako deklarazioaren arabera, ez ziren 11:30ak arte iritsi. Pakitok adierazi zuen Pertur “Irun ondoko mugatik gertu dagoen bidegurutze batean” utzi zutela, eta ondoren bideari ekin ziotela berriro. Lehen deklarazio hartan, ordea, Pakitok ez zuen aipatu Apala beraiekin zihoanik; urte batzuk beranduago, Fernando Andreu epailearen aurrean aitortu zuen biak bertan zeudela. Apalak, bere aldetik, 1977ko ekainaren 2an epaile frantsesaren aurrean adierazi zuen Pertur “pare bat alditatik” baino ez zuela ezagutzen, eta ez zuela “zerikusirik kasu honekin”. Halaber, ez zuen aipatu autoan eraman zuenik. Familiak eta zenbait ikerlarik bi orduko atzerapen horren “justifikazio falta” eta Apalaren kontua azpimarratu eta kasuko “kontraesan garrantzitsuenetarikoa bat” izan dela adierazi izan dute. Hala ere, kontuan izan behar da Apala, Pakito eta Pertur bera erakunde armatu bateko militanteak zirela, eta testuinguru hartan ez zela ezohikoa segurtasun eta operazio arrazoi desberdinengatik autoritateen aurrean informazioa ezkutatzea edota autoko ibilbideak bihurritzea.

Desagerpena eta lehen salaketak

Une horretatik aurrera, adierazpen publikorik egin duen inork ez zuen Pertur berriro bizirik ikusi. Uztailaren 24ko eguerdian, haren izebak dei anonimo bat jaso zuen –emakumezko ahots batekin–, Donibane Lohizunera joateko esanez, "Eduardo desagertu zelako". Arratsalde berean Frantziako Poliziaren aurrean salaketa aurkeztu zuen. Gau berean, Pakito Telesforo Monzonekin batera Jendarmeriaren aurrean aurkeztu zen borondatez, eta bere bertsioa eman zuen –Apala aipatu gabe–. Fernando Andreu epailearen aurrean adierazi zuenez, uztailaren 23ko arratsalde osoan ez zen etxetik atera, eta ETA (pm)-ko

Uztailaren 24ko eguerdian, Perturren izebak dei anonimo bat jaso zuen –emakumezko ahots batekin–, Donibane Lohizunera joateko esanez, "Eduardo desagertu zelako". Arratsalde berean Frantziako Poliziaren aurrean salaketa aurkeztu zuen

buruzagi batek ohartarazi zion deklaratzera joan behar zuela, desagerpena dagoeneko salatuta zegoelako.

Bien bitartean, Perturren gurasoak –Álvaro Moreno eta Marta Bergaretxe– Iparraldera zihoazen haren bila. Uztailaren 24ko gauean, Biriatuko mugan atxiki zituen Espainiako Poliziak. Dokumentazioa arauzkoa izan arren, ez zieten pasatzen utzi; arrazoia “gehiegizko zeloa” omen zen. Gurasoek gertatutakoa salatu zuten Donostiako agintarien aurrean.

Aurrekari egiaztatuak: poliziaren mehatxuak, presioak, ultraeskuinaren atentatuak eta ordainsariak Pertur harrapatzearen truke

1975eko azaroaren 20a: Moreno Bergaretxe familiaren etxebizitzak atentatua jasan zuen Batallón Vasco Español taldearen eskutik.

1976ko martxoaren 25a: Perturrek berak mehatxu-gutun bat salatu zuen, eskuin muturrreko talde batek sinatua, non Ángel Berazadi enpresaria askatzea eskatzen zuten.

1976ko martxo amaiera: Marta Bergaretxe, Perturren ama, atxilotu eta hiru egunez eduki zuten inkomunikatuta, Eduardo López Maturana komisarioaren etxean. Hark beranduago aitortu zuen “goi agindu bati jaramon eginez” jardun zuela.

1976ko apirila: bi polizia espainiar desagertu ziren Hendaian, eta polizia frantses batzuek truke bat proposatu zuten: haiek askatzearen truke, Marta Bergaretxe askatzea.

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

1976ko maiatzaren 30a: *La Voz de España* egunkariak 10 milioi pezetaren truke Pertur harrapatzea eskatzen zuen artikululu bat argitaratu zuen, Enrique Sanz Martínek sinatua.

Zer ez dakigun

1978 eta 2007 artean, kasua artxibatuta eduki zuten, eta familiaren iniziatiba partikularrak baino ez ziren izan sasoi hartan. 1977ko Amnistia Legea, "borroka antiterrorista" eta borondate politiko falta zirela medio, hiru hamarkadako geldialdi judiziala izan zen. 2008an Andreu epaileak kereila onartu zuen, eta lau urteko instrukzioa izan zen Pakitoren, Antxonen, Lourdes Auzmendiren eta neofaxista italiarren testigantzekin. Epaileak, lau urteko instrukzioaren ondoren, 2012ko irailaren 20ko ebazpenean ondorioztatu zuen ez zegoela inor inputatzeko adina zantzurik. Ez da gorpurik aurkitu, ez dago aztarnarik, ez aitortzarik, ezta bahiketaren edo hilketaren lekuko zuzenik ere. Ondorioz, auzia behin-behinean artxibatu zuten, hau da, froga berriak agertzen badira berriro ireki daiteke. 2017an iritsi zitzaion EHUri Eusko Jaurlaritzaren ikerketa enkargua, eta idazlanaren ondorioak argiak izan ziren: ikerketa akatsez josia izan zen hasieratik, desagerpena delitu iraunkorra da eta egiletzaren inguruko zaratak aurrerapenak oztopatu ditu. Gauzak horrela, adituek kanpaina instituzionala bultzatzea eskatu zuten datu berriak biltzeko, baina ez du emaitzarik eman oraingoz.

BERTSIOAK ETA INTERPRETAZIOAK, AURREZ AURRE

Berrogeita hamar urtez, bi hipotesi nagusi zabaldu dira Perturren bahiketa eta desagerpenaren egiletzari buruz. Haietako bat bera ere ez da modu erabakigarrian frogatu; zantzu eskuragarriak, ordea, askoz gehiago doaz Estatu aparatuen egiletzaren norabidean, erakundeek

1975eko azaroaren 20a: Moreno Bergaretxe familiaren etxebizitzak atentatua jasan zuen Batallón Vasco Español taldearen eskutik

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Pertur, 1976ko maiatzaren 30a

Angelo Izzo neofaxistak adierazi zuen bere kide Pierluigi Concutellik kontatu ziola 1976ko udan ETAko militante bat bahitu zutela Iparralden, eta segidan narkotizatu, Espainiako Estatura eraman eta poliziaren menpeko talde bati entregatu ziotela. Izzoren arabera, taldeko arduradunak esan zuen “euskalduna torturatu eta desagerraraziko” zuela

Eusko Jaurlaritzaren txostenak “adierazgarritzat” jotzen du gertakaria, hura izan baitzen BVEren lehen agerraldi publikoa. Bi erakundeek ekintza bera errebindikatu zuten, eta horrek ikerlariei pentsarazi die siglen atzean pertsona edo sare koordinatu bera egon zitekeela.

Neofaxista italiarrekin lotura (Ordine Nuovo)

11305/88 zigor sumario italiarrak –Vittorio Occorsiorenen hilketa eta Bernardo Leightonen aurkako atentatuaren kasuekin lotua– jaso zituen hainbat neofaxistaren deklarazioak. Haiek aitortu zuten Ipar Euskal Herrian euskal errefuxiatuen aurka jardun zutela, Espainiako Estatuko polizia zerbitzuen enkarguz edo oniritziarekin.

Angelo Izzok adierazi zuen bere kide Pierluigi Concutellik kontatu ziola 1976ko udan ETAko militante bat bahitu zutela Iparralden, eta segidan narkotizatu, Espainiako Estatura eraman eta poliziaren menpeko talde bati entregatu ziotela. Izzoren arabera, taldeko arduradunak esan zuen “euskalduna torturatu eta desagerraraziko” zuela.

Sergio Calorek informazio horren zati bat berretsi zuen.

Fernando Andreu 2009an Italiara joan zen Concutelli deklaratzera deitzeko, aurretik horri uko egin ostean, baina hark iktus bat izan zuen eta bere testigantza osatu gabe eta baliogabe geratu zen.



Perturren arrebari egindako mehatxua

1976ko azaroaren 15ean, Marta Moreno Bergaretxek gutun bat jaso zuen: “Zure nebarekin egin genuen bezala desagerraraziko zaitugu eta bala-zuloz josiko zaitugu”. “VI Comando Adolfo Hitler de ORDEN NUEVO”-k sinatua zegoen –Ordine Nuovoren gaztelaniazko izena–. Frantziako epaileak ez zuen mehatxu hura ikertu.

1976ko azaroaren 15ean, Marta Moreno Bergaretxek gutun bat jaso zuen: “Zure nebarekin egin genuen bezala desagerraraziko zaitugu eta bala-zuloz josiko zaitugu”. “VI Comando Adolfo Hitler de ORDEN NUEVO”-k sinatua zegoen. Frantziako epaileak ez zuen mehatxu hura ikertu

Espainiako Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren erantzuna Frantziari

1977ko otsailaren 19an, Dirección General de Seguridad (DGS) ordena publikoko organo espainiarrak Frantziako epailearen eskaerari erantzun zion. Eskuin muturrari edo sare italiarrei buruzko pistarik eman ordez, txostenak Apala seinalatu zuen “susmagarri nagusitzat”, “ETAren barne desadostasunak” aipatuz eta “antolakundearen hegal erradikalak Perturren ezabaketan zuzenean parte hartu zuelako” hipotesia indartzen saiatzeko. Eusko Jaurilaritzaren txostenak azpimarratzen du dokumentu ofizial horrek erabat baztertu zituela Triple Aren eta BVEren erreibindikazioak, eta Apalaren aurka oinarri sendorik gabeko akusazio bat eraikitsera mugatu zela. Hura izan zen Espainiako Estatuak nazioartean ETAren aurkako susmoa bideratu zuen lehen aldia.

Eugenio Etxebeste “Antxon”-en testigantza Audientzia Nazionalean

2008an, kasua berriro irekita, Eugenio Etxebeste “Antxon” ETAko buruzagi ohiak Fernando Andreu epailearen aurrean deklaratu zuen. Bertan, Perturren desagerpena Espainiako Estatuko inteligentzia-zerbitzuek antolatutako operazioa izan zela adierazi zuen, ETA barruan “barne kontuen doikuntzaren” irudia nahita sortzeko, “pertsona kualifikatu” bat ezabatzeko eta ETAren barruko zatiketak elikatzeko. Antxonen arabera, ez ETA (pm)-ko kideek ezta Bereziek ere ez zuten

zerikusirik izan desagerpenarekin. Metodoei dagokienez, Lasa eta Zabalaren kasuarekin alderatu zuen gertatutakoa.

ETAren egiletzaren hipotesia

Susmoaren jatorria

Hipotesia ez zen erabat hutsetik sortu; esan bezala, Pertur bizirik ikusi zuten azken bi pertsonak Pakito eta Apala izan ziren, ETA (pm)-ren Komando Berezietako kideak, Perturrek defendatzen zuen ildo politikoaren kontrakoak. Bi hilabete lehenago (1976ko maiatzean), Bereziek Perturren aurkako neurri diziplinario bat betearazi zuten egun batzuetan, buruzagien bilera batera joan zedin eragozteko. Eugenio Etxebeste “Antxon”-ek aitortu zuen epailearen aurrean “atxiloteta prebentibo” bat izan zela. Hala ere, neurri hark huts egin zuen, erakundearen gehiengoak Pertur askatzea eskatu baitzuen. Militanteen aurkako halako neurri diziplinarioak ez dira oso ezohikoak erakunde armatu klandestinoetan, ezta ETAn ere.

Lourdes Auzmendiri idatzitako gutuna (1976ko uztailaren 11)

Desagertu baino hamabi egun lehenago, Perturrek bere bikotekideari idatzi zion: “Basati hauek halako giroa sortu dute non ETA [...] estatu polizial bihurtu duten, non bakoitzak ondokoaz susmatzen duen [...] Ez naiz gai konspirazio,

ETAren aurkako hipotesiak –zantzu ahul edo zirkunstantzialetan oinarrituta– tratamendu pribilegiatua jaso du; aldiz, Estatuaren edo eskuin muturraren egiletzaren hipotesia –erreibindikazio zuzenetan, nazioarteko testigantzetan, dokumentatutako mehatxuetan eta testuinguru historiko sendoago batean oinarritua– sistematikoki gutxietsi edo bigarren mailako xehetasun gisa isilarazi da

infundio eta gezur dinamika infernal honetatik ihes egiteko”. Gutunak frogatzen du barne tentsio handia zegoela, baina ez du frogatzen Bereziek hil zutenik. Erakundearen barruan giroa gaiztotuta zegoela adierazten du, besterik ez.

Familiaren akusazio publikoa (1978ko urtarrila)

Desagerpenetik urte eta erdi igaro ondoren, bere ikerketa propioen ostean, Moreno Bergaretxe familiak publikoki seinalatu zituen Bereziak ustezko arduradun gisa. Prentsaurrekoan gutunaren pasarte gogorrenak plazaratu zituzten, eta komunikabideek zabalpen handia eman zieten.

ETA militarraren erantzuna

ETA militarrak familiaren 1978ko lehen prentsaurreko hari erantzun zion, “euskal eskuinaren sektoreek manipulatuta” zegoela esanez. ETA (pm)-ko zuzendaritzak, bere aldetik, adierazi zuen barne ikerketa egin zuela, baina “ez zirela nahikoa elementu edo froga bildu akusazio zehatzik formulatzeko”.

ETAren aurkako hipotesiak azaldu ezin duena

Alde desberdinetatik ETAri egin izan zaizkion akusazioek, ordea, badituzte hainbat hutsune:

Inolako gorpuzkirik edo aztarnarik topatu ez izana.

ETAk inolako erreibindikaziorik ez egitea, bestelako barne-gatazketan ez bezala.

Ageriko desproporzioa bi orduko hutsune horren eta kontrako norabideko zantzu kopuruaren eta haien pisuaren artean.

Pakito eta Apala zantzu faltagatik inoiz epaitu ez izana, Estatuak haietako bat hasieratik seinalatu eta haien aurkako ikerketa bat irekitzeko borondatea izan zuen arren.

Hedabideen rola, kontakizunaren

eraikuntza eta zantzuen desproporzioa

Hutsune horiek eta mediatikoki ezarri den narratiba ikusita, hedabideek kasuaren trataeran jokatu duten rola aztertzera garamatzate. Kontua ez baita bi hipotesiek froga-pisu bera dutela eta hedabideek ausaz bat aukeratu dutela. Aitzitik, ikerketa kazetaritzak eta ikerketa-txostenek erakusten dutena oso bestelakoa da: desoreka sistematiko bat. ETAren aurkako hipotesiak –zantzu ahul edo zirkunstantzialetan oinarrituta– tratamendu pribilegiatua jaso du; aldiz, Estatuaren edo eskuin muturraren egiletzaren hipotesia –erreibindikazio zuzenetan, nazioarteko testigantzetan, dokumentatutako mehatxuetan eta testuinguru historiko sendoago batean oinarritua– sistematikoki gutxietsi edo bigarren mailako xehetasun gisa isilarazi da.

a) Zer zantzu daude benetan ETAren aurka?

Pertur bizirik ikusi zuten azken bi pertsona eza-gunak ETA (pm)-ko Komando Berezietako kideak ziren.

ETA (pm) barruan tentsio politiko handia zegoen, Perturren gutunak eta 1976ko maiatzeko neurri diziplinarioek erakusten duten bezala.

Elementu horietako bakar batek ere ez du erakunde armatuaren ardura frogatzen. Ez dago gorpurik, ez aitortzarik, ez lekukorik, ez armarik edo hilketa-lekurik, ez ETAren erreibindikaziorik. Hipotesia, funtsean, antolakuntzazko harremanetan eta desadostasun politikoetan oinarritzen da; oso zantzu orokorrak.





Hurrengo urteetan, Espainiako Estatuko hedabide nagusiek –haietako asko Euskal Herrian finkatuak– desagerpena “ETAren barne-garbiketa” gisa aurkeztu zuten, “ajuste de cuentas”. Titularretan garrantzia berezia eman zioten Perturren gurasoek une batean ETA seinalatu izanari, eskuin muturrari buruzko pistak testuaren amaieran ezkutatzeko zituzten bitartean

b) Zer zantzu daude Estatuaren/ eskuin muturraren aurka?

Bahiketaren aurretik La Voz de España egunkarian Perturren edo ETAko bestelako buruzagi batzuen truke 10 milioi pezeta eskaintzen zituen iragarri bat argitaratu izana.

Bahiketaren ondorengo egunetan bi talde parapolizialen berehalako erreibindikazioak izan ziren (Triple A eta BVE).

Italiako sare neofaxisten lotura, testigantza judizialekin (Angelo Izzo), 1976ko udan Iparralden egindako bahiketa baten kontakizun zehatzarekin: narkotizazioa, Espainiako Estatura eramatea eta indar polizialen esku uztea.

Perturren arrebari egindako mehatxu dokumentatua, Ordine Nuovoren sinadurarekin.

Amaren aurretiazko atxiloteta, goi-mailako agindu polizialen bidez, haren jarduerak “polizia kontuak nahas” zitzakeelakoan.

Dirección General de Seguridad-en txostena Frantziari, pista horiek ikertu beharrean Apala seinalatzeko presazko jarrerarekin.

Testuinguru historikoa: 1975–1976 artean, Iparraldean ETAren aurkako gerra zikin aski ezaguna; BVE, Triple A eta Espainiako polizien jardunarekin, sarritan italiar neofaxisten laguntzaz, urte hartan bertan Montejurrako gertakarietan jazo zen bezala. Gainera, hurrengo urteetan ere euskal militante gehiago desagerrarazi zituzten: “Naparra”, “Popo”, Lasa eta Zabala...

Zantzu horien guztien pilaketak ez du Estatuaren egiletza frogatzen, baina haien kopurua, aniztasuna eta jatorria –tardean iturri judizial frantses eta italiarrak– nabarmen handiagoa da ETAren aurkako zantzuekin alderatuta. Hala ere, ia ez dute lekuri izan kontakizun publikoan. Kontrara, komunikabide nagusiek zabaldu duten bertsioan DGSk hasiera-hasieratik esandakoa errepikatu dute.

c) Hedabideen trataera: balantza desorekatua, hasieratik

Eusko Jaurlaritzaren txostenak jasotzen du nola 1976ko uztailean bertan Radio Nacional de España-k, iturri polizialekin “truke” hipotesia zabaldu zuen: “Pertur bi polizia espainiarren truke bahitua izan zitekeela”. Bertsio hark oihartzun handiagoa izan zuen hasieran Triple Aren eta BVEren erreibindikazioek baino.

Hurrengo urteetan, Espainiako Estatuko hedabide nagusiek –haietako asko Euskal Herrian finkatuak– desagerpena “ETAren barne-garbiketa” gisa aurkeztu zuten, “ajuste de cuentas”. Titularretan garrantzia berezia eman zioten Perturren gurasoek une batean ETA seinalatu izanari, eskuin muturrari buruzko pistak testuaren amaieran ezkutatzeko zituzten bitartean. Kasu batzuetan, hala nola *El País*en 2016ko uztailearen 23ko edizioan, bi hipotesiei ia leku bera eman zitzaion; baina ordurako kontakizunaren inertzia finkatua zegoen: irakurle arruntarentzat, “Pertur bere ki-deek hil zuten” baieztapen bihurtua zen, ez frogatu gabeko hipotesi bat.

Desproporzio hori, baina, ez da inondik inora neutrala. Kontakizun ofizialaren eraikuntzak ondorio zehatzak izan ditu:

Ikerketa ixtea: “Denek badakite ETA izan zela”, ez dago gorpua bilatzeko eta Trantsizioko aparatuko polizialak ikertzeko presio sozialik.

Biktimaren kriminalizazioa: Pertur “bere ki-deen esku hil zen buruzagi” gisa aurkeztu dute, eta horrek politikoki ahuldu du familiaren ikerketa-eskaeraren zilegitasuna.

Estatuari mesede egin dio: gailendu den bertsoak hamarkadetan estali du estatu-terrorismoa eta sare parapolizialen jarduna.

Kasuaren gaineko itzala ez da neutroa izan: iturri ofizialek eta masa komunikabideek proiektatua izan da, boterearentzat erosoena zen hipotesia nagusitzeko. Beraz, baliteke zantzuen trataeraren desproporzio hori Estatuaren egiletzaren hipotesia indartu dezakeen zantzu bat gehiago izatea bere horretan.

Zauri bizia, 50 urte beranduago

Mende erdi igaro da 1976ko uztailaren 23 hartatik, eta Perturrek desagerturik dirau. Haren gurasoak egia jakin gabe hil ziren, gorpurik, hilibirik eta erantzunik gabe. Urte batzuk lehenago, 2016ko uztailan, familiak beste adierazpen bat argitaratu zuen *Diario Vasco* egunkarian, eta dagoeneko ez zuen ezein akusazio zehatzik jaurtitzen. “Hasierako nahasmena, ziurgabetasuna, amorrua, bertsio desberdinak, pista faltsuak, manipulazioa, omenaldiak eta huts egindako ikerketak” bizi izan dituztela gogorarazi zuten, eta, “pauso bakoitzarekin, esperantza-izpi bat eta atsekabe berri bat”. Moreno Bergaretxe sendiak salatu zuten 40 urte zeramatzatela zer gertatu zen jakin gabe: "Ez daukagu ezer, min eta tristura erraldoia baizik". Dagoeneko beste


Moreno Bergaretxe sendiak salatu zuten 40 urte zeramatzatela zer gertatu zen jakin gabe: "Ez daukagu ezer, min eta tristura erraldoia baizik". Dagoeneko beste hamarkada bat pasa da, eta egiak ezkutuan jarraitzen du

hamarkada bat pasa da, eta egiak ezkutuan jarraitzen du.

2017an Eusko Jaurlaritzak berak enkargatutako eta EHUko Giza Eskubideen Katedrak egindako txostenak balorazio zorrotzak uzten ditu ikerketari buruz: “Ikerketaren bilakaera oso eskasa izan da hasieratik”, eta “egiletzaren itzalak eta haren ondorio politikoek harri astun baten moduan baldintzatu dute ikerketa, eraginkorra izatea eragotzi arte”. Hori ez da kasualitatearen ondorio, izen-abizenak dituen kontakizunaren eraikuntza estrategiko baten emaitza baizik: 1976ko uztailetik bertatik hasi zen, Radio Nacional de España-ra egindako filtrazioekin; 1977ko otsailean sendotu zen DGSk Frantziari bidalitako txostenarekin –eskuin muturraren erreibindikazioak baztertuz ETAko kide bat seinlatu zuena–; eta gaur arte luzatu da, oraindik ere hedabide askok frogatu gabeko “barne-doikuntzaren” hipotesia “bertsio probable” gisa aurkezten dutelako.

Instituzioek eta Espainiako Estatuko komunikabide nagusiek beste alde batera begiratzen zuten bitartean, ikerketa independenteak bidea urratzen jarraitu du. 2019an, Iñaki Egaña historialariak eta Paco Etxeberria forentseak –Aranzadi Elkartearen baliabide minimoekin, ez Estatuaren bitarteko erraldoiekin– une batez uste izan zuten azkenean Perturren gorpuzkiak aurkitu zituztela, Egañak Naizeko elkarrizketa batean azaldu zuenez. *Operación Pancorbo* izenez ezagututako arrasto bati jarraitu zioten ikerlari independenteek: José Antonio Sáenz de Santa María jeneralak aitortutako plan bati, alegia. Plan horren arabera, Euskal Herritik hurbil dagoen Burgosko herri batean *chupadero* bat ezarri nahi zuten: euskal militante bahituak galdekatu, torturatu eta desagerrarazteko gune bat, Argentinako diktaduran eta munduko beste hainbat tokitan kontraintsurgentzia operazio antikomunistetan Perturren desagerpenaren momentuaren berean, simultaneoki, egiten ari ziren bezalaxe. Ameyugoko hilerrian indusketak eginez, Pancorbo ondoan, egoera onean zegoen hezur-dura bat topatu zuten. Eskuak lotuta zituen, bi tiro buruan, eta seguruenik torturatua izan zen. 25 urte inguruko gazte bati zegokion, Pertur desagertu zenean zuen adin berekoa. Ezaugarri fisikoak eta kokalekua bat zetozen. Aste luzez, Egaña eta bere taldea sinetsita egon ziren kasua argitu zutela. Azkenean, ADN probek baztertu egin zuten aukera hori. Ez zen Pertur.

Operación Pancorbo izenez ezagututako arrasto bati jarraitu zioten ikerlari independenteek: José Antonio Sáenz de Santa María jeneralak aitortutako plan bati, alegia. Plan horren arabera, Euskal Herritik hurbil dagoen Burgosko herri batean "chupadero" bat ezarri nahi zuten: euskal militante bahituak galdekatu, torturatu eta desagerrarazteko gune bat, Argentinako diktaduran eta munduko beste hainbat tokitan kontraintsurgentzia operazio antikomunistetan Perturren desagerpenaren momentuaren berean, simultaneoki, egiten ari ziren bezalaxe





***Eskuragarri dauden
zantzu gutxiek modu
koherentean seinalatzen
dute Estatuaren eta haren
sare parapolizialen
norabidea, nahiz eta
oraindik ez den froga
erabakigarriarik lortu,
adituek salatutako
ikerketa sakonagoen
faltagatik***

Baina pasartea adierazgarria da bere esanahiagatik: ikerlari partikularrak Estatua bera baino urrunago heldu ziren, aurrekonturik gabe, nazioarteko eskakizun-batzorderik gabe eta babes instituzionalik gabe. Gerra zikinaren trama aitortu bati lotutako leku batean izan zen, eta antzera eraildako beste norbait topatu zuten bertan. Topatu zuten gorpua ez zen Perturrena, baina arrastoaren norabidea –Estaturantz, haren sareetarantz, antzinako *chupadero*en ondoko hobietara– zuzena zen. Eta Estatuak bere baliabideak ETaren aurkako susmoa zabaltzera bideratu dituen bitartean, historialariak, forentseak eta kazetari independenteak izan dira egia bilatzeko lurra zulatzen aritu direnak, literalki.

Beraz, esan bezala, ez dago ETaren egiletza frogatzen duen zantzu sendo bakar bat ere: ez gorpurik, ez aitortzarik, ez zuzeneko lekukorik, ez erreibindikaziorik. Aldiz, eskuragarri dauden zantzu gutxiek modu koherentean seinalatzen dute Estatuaren eta haren sare parapolizialen norabidea, nahiz eta oraindik ez den froga erabakigarriarik lortu, adituek salatutako ikerketa sakonagoen faltagatik. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzarentzako txostenak esaldi bakarrean laburbiltzen du abiapuntu izan beharko lukeena: “Gertakariak ez dira iraganekoak. Desagertzea gaur egungoa da”. Pertur non dagoen jakin arte, krimen iraunkorra da. Horregatik, Perturri zer gertatu zitzaion zehatz-mehatz ez badakigu ere, honezkero jakin badakigu kasuan ETaren aurkako susmo funsgabeei eusteak zer eragiten


duen objektiboki: ikerketaren lekua betetzea eta arduradunen inpunitatea bermatzea. Hortik aurrera, norberari dagokio epaitzea norentzat den komenigarria egoera hau.

Galdera zabalik dago. Familiaren eta adituen eskakizuna ere bai. Behingoz hitz egingo al du te dakitenek? Aurreiritzirik gabe ikertuko al da? Perturren gorpua topatzen ez den artean, haren familiak eta ingurukoek ezingo dute itxi mende erdiko zauri bizi hau. Arduradunak eta zergatiak argitzen ez badira, Euskal Herriko memoria kolektiboari beste atal bat gehiago faltako zaio bere historia ulertzeko.

OHARRA: Kontsultagai interesgarriak
UPV/EHU – Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedra (2017ko maiatzaren 17a).

«Informe sobre el caso Pertur: estado actualizado de la cuestión».

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatutako txostena. Gertakarien, ikerketen eta ondorio juridikoen azterketa sakona (preskripzioa, amnistia, nazioarteko estandarrak). ●



Argitalpena

2026KO MAIATZA

EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioaeta
diseinua

**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web

GEDAR.EUS

Sare sozialak

TWITTER ETA

INSTAGRAM

@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua

HARREMANAK@

GEDAR.EUS

Harpidetza

**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa

ZIRRINTA

KOMUNIKAZIO

ELKARTEA

AZPEITIA

Lege gordailua

SS-01360-2019

ISSN

2792-4548

Licencia



Editoreen oharra: Artekako artikuluetan ageri diren ideia,
baieztapen eta ondorioak artikulu bakoitzaren egilearenak
dira.

arteka

